

Irakurleentzako oharra

Liburu hau, liburu soil bat baino areago, saiakera batzuek osatutako entsegu- eta dibulgazio-lana da. Haren helburua subjektuaz jardun duten eta diharduten filosofia nagusiak aurkeztea denez, saiakera izateaz gain, dibulgazio eta kontsultarako liburu gisa pentsatuta dago. Baina, saiakera den aldetik, atal guztietan arian-arian agertuko dira nire gogoetak, tesiak eta iritziak. Hortaz, irakurleok, lasai asko hautatu dezakezue nola irakurri: osorik eta jarraian, atalen bat soilik, edo ataletan nahikara aukeratuz zer irakurri. Irakurketa horiek guztiak posible egin nahi izan ditut. Eta, esan bezala, parteak biltzen dituzten zain moduko tesiak eta gaiak agertuko dira guztietan zehar.

Bi partetan atondu ditut atalok: subjektuaren *zainak* eta *adarrak*. Kasik kronologikoki eta metafora batzuk erabiliz ekarri ditut subjektuaren filosofiak eta gorabehera historikoak. Aurkibidea ikusita berehala igartzen da Modernitatearen edo Antropozenoaren mito politiko-moral nagusien hariak josi dituela saioak: *askatasuna*, *elkartasuna* eta *berdintasuna*, Frantziako Iraultzaren leloaren goiburuak, hain zuzen. Beste batzuk datoz segizioan: aurrerapena, zientzia, teknologia... Horiek denak subjektuaren zainak direlakoan argi-ilun guztiekin azaldu nahi izan ditut. Auresuposizio tinko batetik, askatasuna, elkartasuna eta berdintasuna ez dira europar asmakariak, ez dira europar hedakuntzak munduari egindako opariak. Kontrara, orokorrak dira milaka formatan, nonahi eta noiznahi topatuko ditugu jendeak aske, elkarkide eta parekide izateko borrokan, ahaleginean, nahian, lanean eta sorkuntzan. Askatasunak, elkartasunak eta berdintasunak ez dute forma bakarra: egoeran-egoeran zehaztu behar dira, erlazonalak dira, erlazioak antolatze moduak direlako. Baina hartarako tentsio, joera, irrika edota grinak kondizio humanotzat jotzen ditut. Subjektuaren figuran trinkotu dira alde bateko zein besteko irudimen eta pentsamenduak. Bistan denez, humanismo mota bat aldeztzen dut, unibertsalismo inperialen kontrako humanismo zehaztugabe bat, askatze-praxi historiko jakinei daria.

Europar hedakuntza —inperialista eta kolonialista— behin eta berriro agertuko da liburuan. Figura bat dela argitu nahiko nuke, alegia, Europa proiektu edo fenomeno gisa irudikatzen denean, harrokeria hanpatuarekin edo kritika sarkorrarekin, sinplifikazio ikaragarri baten aurrean gaude. Europa halako proiektu eta errealtatea izan da askotan, inperio kolonialen eta nazio-estatuen Europa hori da, kapitalaren eta industria-zibilizazioarena bezalaxe. Europa —lehenago Kristautasuna, ondoren Mendebaldea— hori dela ukatu barik ere, ezin da ahaztu geografikoki europarrak izan

diren jende asko izan direla zapalduak, esplotatuak, esklabizatuak edo suntsituak. Nekazarien matxinadak edo langileen klase-borroka edo periferia bihurtutako herrien askapen-borrokak edo erlijio-gerrateak edo emakumeen borroka luze bezain isilarazia eta beste asko izan dira europar modernitatearen biktima eta aurkari. Maiz, gainera, oso modu anbiguo batean: Europatik ihes egindako nekazari zapaldu asko kolono zapaltzaile bihurtu ziren itsasoz bestaldean. Eta jendeekin izan behar dugun irizpide berdina izan behar dugu ideiekin. Askatasunaren formak, europar erara esaterako, barne- eta kanpo-borroka askoren emaitza dira, ez europar esentzia baten garapen inperialak, ezta anbiguotasunik eta kontraesanik gabekoak ere.

Alabaina, egungo begietatik barne- eta kanpo-aniztasuntzat jo dezakegun hori guztia behin eta berriro konkistatu, ustiatu eta ukatu egin dute mendebaldar modernizazioek. *Homogenozeno* terminoa erabili dut historia hori guztia batera biltzeko. Liburuaren ardatza dela esan liteke. Modernitatea, hainbat fasetan, natura-kulturen homogeneizazio larri eta eskerga izan da. Zehatzago esan, europar hedakuntza inperialak bi homogeneizazio-prozesu ikaragarri eragin zituen, modernizazioa eta globalizazioa. Etxean ere bai. Euskarak, nire ustetan, bi prozesuok modu askotara bizi behar izan ditu. Koloniak, inperioak, estatuak, nazioak, merkatu kapitalistak, industri edo kontsumo-gizarteak eraiki dituzten modernizazioetan euskara suntsitu beharreko heterogeneotasuna izan da. Egungo globalizazioetan ere hala da, errefusa. Euskara, patu horri uko egin dioten subjektibotasunek eutsi diotelako dugu bizirik. Euskara subjektu egin duten sentierei eta eragintzari esker bizi da. Baina euskara ez da liburu honen gaia, oso gutxitan aipatuko dut. Objektu baino, subjektu izan dadin ahalegindu naiz. Euskarak *hitz* egiten nauen neurrian, euskal subjektibotasun transinsibidualak *sentiera* egiten nauen aldetik, aztertu nahi izan ditut bai homogeneizazioak, bai haien kontra bizi eta iraun behar izan duten heterogeneotasunen subjektugintzak. Ez zuzenean, liburuaren gaia ez baita Homogenozenoaren sorrera edo garapena. Hori eszenatokia baino ez da.

Gai nagusia, esan bezala, subjektua da. Filosofia hegemoniko edo kanonikoetan aztertu dut nola pentsatu eta eraiki duten Modernitatearen auzi eta arazo guztiak biltzen dituen figura hori. Uste batean egin dut azterketa hura: filosofia horietan zauria eta berari darion zornearekin batera, sendabide zenbait ere proposatu direlakoan. Alegia, subjektuaren filosofietan menderakuntza eta jauntzearekin batera, askatasuna, elkartasuna eta parekotasuna landu dira. Norenak eta norentzakoak izan diren erantzun nahian, onespenezaren, maitasunaren, autonomiaren, jakintzaren, praxiaren eta emantzipazioaren unibertsoa eratu duten beste ideia asko agertuko dira orri hauetan. Haiekin batera, sarritan agertuko dira bestelako figurazio abstraktu zenbait: Gizona, Jauna, Morroia, Beltza, Europa, Kapitala... Abstrakzioak dira, noski. Harreman-sistema konplexu edota dispositibo sozial larrien ordezkioak, ez kasu edo jende konkretuak. Abstrakzio horiek indukzioz egindako irudi edo forma sintetikoak dira, kasu askoren trinkotzeak edo hainbatek komun omen duten ezaugarri edota logika bereizien ordezeko orokortuak —hain zuzen, orokorrean hitz egiteko balio behar dutenak—. Baina, sistema soziopolitiko errealak antolatze aldera diseinatzen

diren dispositiboen figurazioak diren aldetik, badira errealak, eta jendeei indar handiz eragiten diete. Finean, harremanak eta jendeak zertzeko, zehazteko, ezartzen diren proiektu edo programa gisa aurkituko ditugu —bai eta berariaz proiektatu gabekoak direnean ere—. Horregatik guztiagatik, askotan Zuria ez da zuri, Gizona emakumeengan gauzatzen da, Kapitala edonoren desiretan, Kolonia kolonizatuen sentieretan... Makina sozial horiek jende arruntekin eta jendeok makinekin zer egin duten aurkezten ahalegindu naiz.

Halako aurkezpen bat euskaraz egiteko orduan oinarriak jo nahi izan dut. Edozeinek ahalegin eramangarri bat eginez irakur eta uler lezakeen testua egitea zen nire helburu baikorra, lañoa eta, segur aski, inozoegia. Dibulgazio-estilo harekin bat eginez, bereiz irakur daitezkeen hainbat saiakera jostea izan da nire asmoa. Alde horretatik, esango nuke atal bakoitzak baduela berez nahikoa zentzurik eta, halaber, erraz sumatzen dela guztietan barna korritzen duen tesi-jarioa edo, bestela esan, zer defendatu eta argudiatu nahi izan dudana. Pentsatu nahi dut saiakera-zipriztinek ez dutela dibulgazio-izaera gehiegi lohitzten. Izaera hori indartzeko, hain zuzen, autore eta filosofoen obrak zuzenean irakurri edo kontsultatzeaz gain, askotan haien lanei buruzko gogoetan eta iruzkinetan zaildu direnak erabili ditut, hau da, «handi» horiek eragin dituzten ildo eta oldeak nolakoak izan diren ere kontuan hartu dut. Maiz ez gabilta «handiek» urratu zituzten bideetan, haien atzetik etorri zirenek zabaldu zituztenetan baizik, edo «handi» horiek bizi-inguruan jaso zituzten ideia eta sentieretan. Nahaste horietan piztu dira sarritan endredatzen gaituzten polemikak edo liluratzten gaituzten fetitxeak. Bestalde, Hegel edo Marxen kasuan nire gustuko Hegel eta Marx hautatu eta aurkeztu ditudala esplizituki esanda doa. Horrek berez eskatu dit kontsulta eta ikasketa patxadatsuagoa, beste askoren kasuan, oster, argudioak josteko kuku bat egin dut honen edo haren lanetan, interpreteek edo jarraitzaileek gidaturik.

Euskaraz dauden lanak erabili ditut ahal izan dudana guztietan. Baina ez naiz tematu lanen hizkuntza originaletara joaz, eskura izan ditudanak erabili ditut. Testu nagusian aipu gehien-gehienak euskaraz eman ditut, erdaraz berezitasunik duten testu zenbait erdaraz utzi ditut. Oharretan, berriz, denetarik dago, testu batzuk jaso bezala, beste batzuk euskaratuta. Esan bezala, saiatu naiz euskarazko itzulpenak erabiltzen, hala ere, kasu batzuetan euskarazko itzulpenak egokitu egin ditut testuaren estilora hurbiltzeko —eta kasuotan hala egin dudala ohartarazita dago—. Nire itzulpenetan, berriz, zuzenean agertuko da erdarazko iturria. Itzulpenetarako, hainbat hiztegiarekin batera noiz edo noiz ELIA itzultzailea ere erabili dut. Jakina, itzulpen automatikoak zuzendu, orraztu eta moldatu egin ditut.

Bestalde, liburu honen sorrerari buruzko ohar bat. Juan San Martín bekaren laguntzarekin idatzi dut liburua. Marko berezi batean egin ere, hiru lagunek aurkeztutako proiektu batean, hain zuzen. Proiektuaren izenburua *Globalizazioaren ondorenaz: apokalipsia, egia-ostea eta subjektuaren autonomia* izan zen. Bertan aipatzen diren hiru arlo horiek saiakera banatan lantzeko proposamena egin genuen.

Eta horixe egin. Hau, noski, subjektuaren autonomiari dagokiona da. Beste biak, Joseba Gabilondok idatzitako *Apokalipsirantz: geroaren historia politikoa* eta Mitxelko Urangaren *Egia-ostearen garaia. Mina, boterea eta egia*. Hirurekin, zein bere estilo eta izaeraz, Modernitatetik honako munduaz eta filosofiaz gogoeta bat osatu nahi izan dugu. Ez da erretorika hutsa esatea Juan San Martin bekaren eta Josebaren eta Mitxelkoren bultzada barik, ez nuela idatziko liburua. Adiskideok, eskerrik asko.

Azken ohar bat, liburua gehien-gehienean espazio atlantikoari begira idatzita dago. Europar kolonialismoa eta inperialismoa, esklabotza eta kapitalismoa, itsaso horretan sortu eta garatu ziren hein handian, baina beste ildo batzuk geratu dira landu gabe. Horietako bat, ekialdekoa. Batez ere, Europak bere *bestea* aurkitu zuen lurraldekoa, Afrika eta Asia nahasten diren lurraldea. Liburua idatzita eta bukatuta zegoen Gazako genozidioa hasi aurretik eta zegoen-zegoenean geratu da. Hala ere, Palestina da gaurko egoeran liburuan Haitik ordezkatzeko duena: menderatu, zapaldu, esplotatu eta, hala behar izanez gero, erabat suntsitu beharreko *bestea*. Jaun Jabeen filosofiek eta ideologiek alde edo molde zurituko dute genozidioa. Badakite Palestina dela, ibaitik itsasora, egungo zauri mingarriena, sumatzen dute Palestinako gatazka eta genozidioan trinkotzen direla Mende baldeko agintearen kontraesan guztiak. Zaurian sendabidea sortuko ote den beldur dira. Hala izango ahal da.

1. Hasiera karibetar bat

1.1. *HOMOGENOZENOAREN SORRERA*

Antropozenoaren argiaren pean ilundurik geratu da *homogenozeno* izena¹. *Antropozeno* hitzak dakarren subjektua —ἄνθρωπος, hau da, gizakia— ez da ageri *homogenozeno* horretan, terminoak ondorio nagusiari begiratzen baitio, ez ustezko subjektuari —hobeto, *anthropos* horren atzean gezur handiegiak ezkututzen dira eta—. Ondorioei begira, homogenozeno kontzeptuak dio mundua bateratzen ari dela, nonahi bizidunen ugaritasuna eta kulturen aniztasuna gutxitzen ari direla. Dena omen da berdinagoa edonon eta dena da eskasagoa edonon, berdin da ekosistemei edo kultura-sistemei begiratzen diegun. Gaur egun arrunt samarra da globalizazioa, krisi globalak, klima-aldaketa eta Antropozenoa pakete bakar batean biltzea. Munduaren interkonexio globala nola egin den ikusita ez da harritzekoa. Gero eta agerikoa da inperio kolonialek, kapitalismoaren garapen eroak, industria-eta kontsumo-gizartearen aseezintasunak edo, hitz gutxitan esatera, Modernitateko indar eta potentziek ekarri gaituztela hondamendi-giro honetara. Modernitatea da Homogenozenoa.

Ez dira gutxi homogeneizazioa goستن dutenak. Oraindik ere goi-zibilizazioaren izenean, edo nazioaren loriaren izenean, edo aurrerapenaren izenean legitimatzen da munduaren bateratze eta berdintzea. Nazio-estatuak homogeneizatu ziren bezala, homogeneizatu behar da mundua. Justuagoak eta funtzionalagoak omen dira gizarte homogeneoak: integratuagoak, kohesiboagoak, ordenatuagoak, estandarizatuagoak, normalizatuagoak, gobernagarriagoak... Agidanez, bide beretik sortuko da mundu-kontzientzia, hau da, mundu-merkatu estandarizatuaren gogoia. Edo, batek daki, mundu-inperio bat, aginte bakar baten mendean baketurik. Hori da askoren ustez historiaren zentzua, sarritan historiaren garaile sentitzen direnen ustea. Baina, praktika eta egituraketa politikoetan bezala, pentsamendu-paradigmetan ere garatu eta hedatu da homogeneotasunaren aroa. Mundu bakarrean, jatorri, printzipio edo lege bakarreko *uni-bertsoan* bizi omen gara, espazio- eta denbora-dimentsio homogeneo eta unibertsaletan. Zibilizazio baten ahalegin larriek moldatu digute halako bizi-unibertsoa, eta hartara moldatu gaituzte. Zibilizazio horrek denboran kokatu zuen bere burua, erregistro-gose aseeginaz eta proiektzioetarako arte zorrotz

1. Terminoa biologiatik dator. Michael Samways-ek proposatu zuen intsektuei buruzko ikerketa batean biodibertsitatearen galera orokorra izendatzeko (Samways, 1999, 65-66. or.). Nik Charles Mann-i hartu diot. Mannek, berriz, Alfred W. Crosby-ren tesietan oinarrituta erabili du, Kolonen bidaiekin hasi zen «aro biologiko berria» izendatu nahi du. Ik. Crosby, 2003 [1972]; Mann, 2013.

eta fin-fina landuz. Europa edo Mendebalde edo Mendebalde Atlantikoa edo antzeko berbak darabiltzagu orain garai batean Kristautasuna zeritzon agintegune lehiakorrez osaturiko multzoa izendatzeko. Ezin da uka mundugintzarako lehian aritu zirela agintegune horiek. Areago ere, zuzen esan daiteke lehia inperial, kolonial edota kapitalista izan dela zibilizazio haren muina eta mundu-proiektua.

Proiektu hori, noski, ez zen kontraesanik eta erresistentziarik gabe garatu, barne- eta kanpo-aurkari ugari izan ditu. Noiz edo noiz iruditu du bere bukaeraz ari zela erditzen, beste mundu bat sortuko zela bere erraietatik. Baina mundu antzua izan da, antza. Ez ote du bere sabelean besterik ernatzeko gaitasunik? Hondamendiaren erlojua atzerako kontuan zenbaki txikietara iritsi omen da. Homogenozenoaren azken orduetan, ordea, bizitzak eta kulturak *heterogeneotasunik* sortzen jarraitzen dute, nahiz eta hainbatetan pandemia, patologia, hondamendi, opresio eta tirania forman izan. Eta, zoritxarrez, askori bururatzen zaizkien erantzunak ez datoz *biziera komun heterogeneoen* aldetik, kolapso orokorren martxa geldo lezaketen subjektu edo teknika handiak nola artikulatu, nola armatu ari dira pentsatzen. Zaharrak, berri.

Homogenozenoaren jaiotza datatzea erraza ez den arren, sortze bat hautatzera, europar hedakuntza Abya Yalara heldu zenekoa hautagai ezin hobea da². Orduan hasi ziren munduan barreiatzen arian-arian handituko ziren europar inperioak, gerora nazio-estatuak, kapitalismoaren eta industrialismoaren arragoak izango ziren haiek; ohi legez patriarkatuan, jabego pribatuan, arrazismoan edota estatu-eta erlijio-burokrazietan ondo aupatuta, haietatik ondo elikatuta. Orduan hasi zen munduan bazterreko erregio bat zenaren zabalpena eta nagusigoa³. Orduan ere hasi ziren, unibertsoa, natura edo kreazioa bakarra zelakoan haren jabe izateko europar potentzien ahaleginak. *Plus ultra* leloak adierazi bezala, europar hedakuntzak muga guztiak gainditu behar zituen. Erdi Aroa deritzona bukatu zenez geroztik, Europan biltzen eta saretzen ari ziren indar ekonomiko, sozial, moral eta politikoek kanpora bota beharko zituzten milioika pertsona hurrengo mendeetan. Harrezkero, europar jatorriko jendeak mundu osoan barreiatu dira eta beren bizimodu, mintzaira, sinesmen, tresna edota erakunde politikoekin batera, han-hemenka barreiatu dituzte materialak, animaliak, landareak, zomorroak, bakterioak, birusak eta, nola ahaztu, beste jatorriko jendeak, usu *jabedun giza baliabide* —esklabo, preso, morroi edo behartutako langile— kategorian sartuta. Horrela, europar erara, garatu da munduaren *homogeneizazio humanoa*. Biologikoki, ekologikoki eta kulturalki, azken bostehun urteetan historian izan den bateratze eta homogeneizatze azkarrena gertatu da. Maiz

2. Abya Yala da kuna herriak kolonizatu aurretik Amerikari emandako izena. Amerika, egia esan, errealitate koloniala da, Abya Yala borroka anti eta dekolonialetan gero eta gehiago erabiltzen den izena. *Lur Joria* esan nahi omen du. Izen biak erabiliko ditut: errealitate koloniala eta errealitate antkoloniala.

3. XV. mendearen bukaerara arte, Europa Islamaren mendebaldeko periferia baino ez zen. Mundu musulmanak, berriz, Atlantikotik Ozeano Bareraino zeharkatzen zituen Afrika eta Asia eta garaiko merkataritza-gune trinkoena ukitzen zuen, Txina. Hango biztanleria, orduan, Europarena halako bi zen (Dussel, 2020, 35. or.).

europar hedapena deitu zaio, baina ekologiaren ikuspuntutik Alfred W. Crosby geografo eta historiagileak *koloniar trukea* deitu zion (Crosby, 2003 [1972])⁴.

Non hasi zen koloniar trukea? Charles Mannen urratsei jarraikiz, La Española irla hautatu dezakegu halako ohore txarrerako (Mann, 2013, 29. or. eta hurr.). India eta Txinaren mundu-merkatuan sartzeko bide azkarra topatu nahian, han aurkitu zituen Kolonen espedizioak Mendebaldeko Indiak eta bertan ezarri zen europar lehendabiziko kolonia. La Española, gaur egun, bi estaturen lurraldea da, Haitik eta Dominikar Errepublikak partekatzen dute irla. Kolonen espedizioa hara iritsi zenean bi etnia bizi omen ziren, tainoak —edo arahukarrak— eta karibeak. Dirudenez, *karibek* oldarkor eta ausarta esan nahi zuen, baina europar mintzaitan laster *kanibal* bihurtuko zen⁵. Ez dago argi zenbat ziren, Bartolome de Las Casasek hiru milioi inguru zirela idatzi zuen, «sobre tres cuentos de ánimas», eta urte gutxiren buruan apenas berrehun bat bizi zirela.

En estas ovejas mansas y de las calidades susodichas por su Hacedor y Criador así dotadas, entraron los españoles desde luego que las conocieron como lobos y tigres y leones crudelísimos de muchos días hambrientos. Y otra cosa no han hecho de cuarenta años a esta parte hasta hoy, y hoy en este día lo hacen, sino despedazallas, matallas, angustiallas, afligillas, atormentallas y destruillas por las extrañas y nuevas y varias y nunca otras tales vistas ni leídas ni oídas maneras de crueldad, de las cuales algunas pocas abajo se dirán, en tanto grado que habiendo en la isla Española sobre tres cuentos de ánimas que vimos, no hay hoy de los naturales della doscientas personas (De las Casas, 2011, 15. or.)⁶.

4. Crosbyk, beste liburu batean, *inperialismo ekologikoa* aztertu zuen: europar inperioek gerra eta inbasio kolonialetan alde izan zuten beren «ekologia» (Crosby, 1998 [1986]).

5. Joseba Sarrionandiak beste etimo bat eman digu: tainoen mintzairan, *karibe* etsaia zen. Karibe, kanibal, kaliban, kalinba hitzak nola txirikordatu diren azaltzen digu Joseba Sarrionandiak *Gauzak direna balira* liburuan. Kaliban, beharbada, esanguratsuen. Shakespeare eta Renanen lan klasikoek taxutu zituzten pertsonaien arketipoak —Prospero, Kaliban, Ariel, Saikoratz, Miranda— Silvia Federicik kapitalismoa eta Modernitatearen sorrera azaltzeko erabili ditu. Tesia ondo ezaguna da gure artean: sorgin-ehiza eta kaliban-karibe-kanibalen suntsiketa koloniala kapitalismorako jendetza diziplinatuak sortzeko teknologiak, dispositiboak, izan ziren. Sarrionandiak hitzen arrastoan, «propietate titulua» markatzeko erabiltzen zen *kalinba* tresnara eramaten gaitu. «Antilletan... Esklaboek propietate titulua eramane behar izaten zuten bizkarrean markatuta, burdina goriz sakitzen zitzairen jabearen marka». Jabego-titulua eta jende-kategorien tituluak bizi-ekonomia sozial berean ulertu behar dira (Sarrionandia, 2020).

6. Errelazioa, 1542an idatzita, garaiko espainiar printzeari zuzenduta zegoen, gerora Filipe IIa izango zenari. 1552an argitaratu zen lehenengoz. Mende-erdi eskas behar izan zen, antza, «aurkikuntzatik» suntsiketara. Liburu hori da, nire ustez, Modernitateari buruz pentsatzeko abiapuntu ezin hobea. Hor deskribatzen diren torturak, krimen edo genozidio globalizatuak ez ziren ondorengo mendeetan umotutako fruitua. *Auschwitz* ereduak administrazio teknoburokrtikoa erantsiko zion genozidioari, baina *bestea* suntsitzea Modernitatearen erabidea izan da hasieratik —Modernitatearena ere bai, esan nahi baita—.

Egia esan suntsiketa horren kausa ez zen izan bakarrik *giza leinuaren etsaiek*⁷ krudel eta gordinki egindako sarraskia, triskantzarako lagun eta kide estimatuak izan ziren europarrek eramandako gonbidatu ikusezinak, birusak. Espainiar espedizioak lur horietan oina jarri eta 26 urtera, 1518an, baztanga-izurritea agertu zen irlan, gutxira mundu berriko bazterretara zabaldu eta sekula izandako «hondamendi demografiko» handienari eman zion hasiera —argiago esan, triskantza bioinperial handienari—. Baztangak eta europarrek eramandako gainerako gaixotasunek bi mendetan Abya Yalako populazio osoaren hiru laurden hil zituzten (Crosby, 2003, 39-47. or.). Homogenozenoa bere itzala zabaltzen hasi zen horrela; munduak batzea eta berdintzea, bizitzaren administrazioaren gainean bezala, garbiketan eta sarraskian bermatzen dira. Batzuetan ondo programatutako inperialismo baten bidez, bestetan, planik gabe, ezjakinean, Crosbyk *inperialismo ekologiko* zeritzonaren eskutik.

Hala ere, Homogenozeno ekologikoan bezala, Homogenozeno politiko, sozial, kulturean ere lehendabiziko urratsetan kontrolagaitza den nahas-mahasaren heterogeneotasuna gailentzen da. Mundua nahastu eta bat egin nahi duen inperialismoak aurre egin behar dio etengabe nahasketak sortutako anabasari: kaosa da mundu globalaren itxura goiztiarra, bestela esan, hasiera batean aurreikusi ezin diren hamaika elkarrekintza sortuko dira eta edonora hedatzen diren komunikazio-eta garraio-fluxuek edozer hedatuko dute noranahi. Nekez kontrola daiteke halako bizitasuna. Nekez, baina larrutik saiaturiko dira administrazio kolonialak lan gaitz horretan —eta larrutik ordainduko dute mota guztietako administratuek—.

Hala, aurreikusi gabeko ondorioak pilatzen dira kaos itxuraz. Baztangak esklabo eta morroi gabe utzi zituen espainiarrak eta auzi teologiko berezi bat sorrarazi zien. Izan ere, India Berrietako *indigenak* kristautu ahala arazo legal eta erlijiosoak agertu ziren, bat besteen gainetik: arimadun kristauak ezin ziren esklabo hartu edonola. Auzia ebatzte aldera, administrazio kolonialak *enkomienda*-sistema asmatu zuen. Enkomiendak kolonoen esku utzitako landa-esplotazioak ziren; esplotazioa eta hari loturiko hainbat *indio*, bertan «babesa» jaso eta trukean lan egitera behartuta zeudenak. Gauzak horrela, 1542an ezarri ziren indioen esklabotza debekatu zuten Lege Berriak, eta atoan ekin zioten afrikar esklaboen komertzio itzel handiari. 1544an heldu zen Veracruzera aurreneko kargamentua (Mann, 2013, 367. or.). Senegal eta Gambia aldean zabaltzen zen Jolof inperioaren lurretatik eraman zituzten lehenengo esklaboak. Baina, hala ere, ez ziren Ameriketara aurren eraman zituzten afrikar esklaboak, La Españolaren kolonizazioa hasi zenetik afrikarrak mordoxkaka eraman baitzituzten.

Artean Kolon koloniaren administraria zela gertatu zen afrikarren lehendabiziko matxinada, 1521ean. Altxamendua zanpatu eta buruzagiak urkatu bezain laster tainoak altxatu ziren Enriquillo zeritzon liderraren gidaritzapean. Hainbat afrikar

7. «*Enemigos del linaje humano*» deitu zien Bartolome de Las Casasek, *ibid.* 22. or. Bestalde, suntsiketaren subjektua «españoles», «cristianos» eta «cristianos españoles» dira liburuan. Kategoria horietan sartuta jatorri askotako jendeak, euskaldunak barne, zeudelarik.

batu ziren matxinada hartara. Eta guztien artean herrixka libre bat sortu zuten mendialdean, handik egin zieten eraso hainbatetan kolonoen etxaldee. Hamabi urteren buruan, espainiarrek bake moduko zerbait itundu zuten Enriquilloekin: matxinoek mendialdea utziko zuten eta espainiarrek *enkomienda*-sistemaren legeak beteko zituzten. Afrikarrek, hala ere, ez zuten itun hori onartu eta mendialdeko oihañetatik eraso eta matxinadak eragiten jarraitu zuten. La Españolan matxinadek luze iraungo zuten. Dio Mannek 1501ean La Españolan horrenbeste zirela esklaboak ezen Koroak agindu zion gobernadoreari gehiago ez lehorreratzeko. Han bezalaxe, amerikar kolonia berri gehienetan esklaboek ez zuten patu hori besterik gabe onartuko.

Europar kolonizazioak, Mannek jasotako datuen arabera, 1500 eta 1840 urteen tartean ia hamabi milioi afrikar eraman zituen Ameriketara, garai berean, aldiz, hiru milioi eta erdi europarrek egin zuten harako bidaia. Datuon argitara aise ulertzen da kolonizazio izugarri hura afrikar eta Abya Yalako biztanleen pentzura egin zela. Bertolt Brechten gisara galdetu liteke, egundoko mundu berri horiek nork eraiki zituen? Noren oinaze eta minak izan ziren mundu berrien altxagarri? Ameriketara bortxaz eramandako esklaboak bortxaz menderatu behar izan zituzten inperio- eta kolonizazio-egiturek. Behin eta berriro matxinatu ziren, behin eta berriro saiatu ziren ihes egiten edo indarrari indarrez erantzuten. 1503an, kolonbiar trukeak hamarkada bete berri zuela, La Españolako gobernadorea kexu zen ihes egindako esklaboek taino libreen artean babesa zutelako. Horrez gain, nonahi sortu ziren iheslarien komunitate libreak, beregainak, zimarroiak «estatuak»: *quilombo*, *cumbe*, *palenque*, *calungas*... (Mann, 2013, 409-410. or.)⁸.

Baso eta mendietan ihes eginda beregain bizi ahal izan ziren jende horiei jarri zitzaizena, *cimarrón* edo *maroons*, tainoen hizkuntzatik omen dator, *iheslari* esanahia zuen *simaran* hitzetik. Kolonizatzaileek basokoa, sasikoa, basajendea esateko hartuko zuten eta egungo espainiera ofizialean adiera horien lerradura areagotu egin da. Real Academia Española de la Lengua erakundearen hiztegiak bost adiera eman dizkio hitzari: basora ihes egin duen animalia, basapiztia edo hezigabeko animalia, berez hazi den basalandarea, marinel alper eta soraioa, eta azkena, Ameriketako hainbat herrialdetan, baso-mendietan babesten zen esklabo iheslaria. Antza denez, espainiera «orokor» eta «neutroan» esklabo libreak animalien, landareen eta marinel nagitsuen atzetik geratu dira, ostendurik. Itxuraz, Ameriketako espainieraren kontu bitxia baino ez da esanahi hura. Garrantzi gabeko adiera putzila.

Lehendabiziko zimarroiak tainoak izan ziren; oso laster La Españolako afrikar esklaboei eta taino eta afrikarren ondorengoei ere hala zeritzen. Zimarroiak izan ziren, esan liteke, independizatu ziren lehenengo amerikar berriak. Ez ziren zuriak, ez europarrak, inperio kolonialen atzaparretatik ihesi mendialde, oihañ eta basamortuetan babesa eta askatasuna erdietsi nahi izan zuten jende nahasi matxinatuak baizik. Aspaldian, Orlando Patterson soziologo jamaikarrak esklabotza

8. Honetaz klasikoa, Richard Price-ren *Maroon Societies: Rebel Slave Communities in the Americas* (Price, 1996 [1973]).

heriotza sozialarekin berdindu zuen (Patterson, 1982). Esklaboa ez da inor, hil baino lehen hil da jendarteko kideentzat, soilik jabearekin duen lokarriaren bidez du izaterik. Izan, esklaboa ondare suntsigarria da. Ez da *bere eskuko*, ez da *nor*. Ikuspegi ezkor hari Neil Robertsek esklaboen askatze-ahalmena kontrajarri nahi izan dio *Freedom as Marronage* saioan (Roberts, 2015)⁹. *Marronage* delakoa —*zimarroitza* esan liteke— askatasun liminala da, hau da, askatasunaren eta esklabotzaren arteko mugalde bat. Ekintza moduan ulertuta zimarroitza askatze-borroka etengabea da, ihes etengabea. Robertsen ustetan, Mendebaldeak askatasuna pentsatu du modu estatiko batean, arreta handirik eman barik askatze-prozesuari berari eta erreparatu barik bere eskuko izaterik izan ez dutenek nola egin dioten aurre zapalkuntzari. Zimarroiek, bistan da, beren elkarteak sortu zituzten esklabotzatik aske bizitzeko; alabaina, oso gutxitan lortu zuten inperio esklabistek bakean utz zituzten eta ez zituzten inperio horien zutabeak arrakalatu. Eta, hala ere, ez dago europar eskubide eta askatasunak ulertzerik esklabotza eta zimarroitza baztertuz gero. Horrenbestez, Robertsek askatasunaren eta esklabotzaren kontzepzio *kreolizatuaren* alde egiten du, haren ustetan zimarroitza legokiokkeen askatasuna (*Ibid.*, 20. or.). Kreolea, alabaina, ez da hitz sinplea.

1.2. ZIMARROIAK, MESTIZOAK ETA KREOLEAK

Kolonialismoarentzat konkistek, okupazioek eta zernahiren esplotazioek eragiten duten nahas-mahasa arrazionaltasun sinplifikatzailearen bidez antolatu, administratu eta zuzendu behar den albo-kaltea da. Espainia Berrian, hau da, Mexiko kolonialean, esaterako, jatorriaren arabera antolatu nahi izan zuten jende nahasketen anabasa, hartara kasta-sistema zorrotza bezain korapilatsua ezartzen saiatu ziren. Xedea, bakoitzaren izaera eta maila soziala «odol-garbitasunaren» arabera zehaztea zen, beti patriarkaren ikuspegitik. Jatorri bateko gizona beste jatorri bateko emakumearekin umerik izanez gero zer sortuko zen? Hiru arraza nagusiak —zuria edo espainiarra, *mora* edo beltza, eta indioa— hamaika kastatan nahasten ari ziren, nonbait. Batzuk oraindik ere ezagun ditugu: «*español con india, mestizo*» edo «*español con mora, mulato*»; beste batzuk, ordea, gaur arrotz samarrak: «*calpamulato con cambuja: tente en el aire*» edota «*tente en el aire con mulata: no te entiendo*». Halatan, jendeen sailkapen hura barrokoegia suertatu zenez, administrari kolonialen sailkatze-grina xehetasunetan galdu zen (Alonso del Real, 1972). Ezarian, kasta gehienak ahaztu egin ziren eta sistema sinplifikatu zen, kasta berri guztiak alde batera utzi eta kasta guztien bilgunetzat jota mestizoaren irudia nagusitu zen.

9. Zimarroitza eredu gisa defendatu dutenen artean, Hardt eta Negri ditugu, *Commonwealth* saiakeran exodoa proposatzen dute kapitalismotik —«republic of property» deritzotenetik— ihes egin eta multitudearen autonomia eraikitzeko estrategia moduan, «komunez birjabetzen, gure lehengo lanaren emaitzak eta gure etorkizunerako produkzio eta erreprodukzio autonomoetako baliabideak gure egiten». M. Hardt eta T. Negri, *Commonwealth*, Harvard University Press, 2009, 164 or. Autonomismotik maiz proposatu da sistematik kanpoko gune edo une askeak sortzea. Zimarroitza erromantikoki hartzeko joeren aurrean, gogoratu ahal da horietako asko komunitate libreak izan ziren bezala, beste batzuek jauntxokerian oinarritutako hierarkiak izan zituztela.

Español, mestizo, indio, beltz eta halako kategoriak sistema kolonialak altxatu ahala sortu eta landu ziren. Horietan nabariena, agerikoena eta (kritikarako) disimulatuen *zuri* eta *europar* kategoriak izan dira. Azken hori, neurri batean kristau kategoriaren ezpalekoa, Europaren ideia bera mundu-hedakuntza inperialean sortu den bezala sortu da, alegia, kategoria unitarioa bihurtu da aurrez aurrean *bestea* irudikatu ahala. Zuritasuna —kasuan, *españolidad* gisa adierazita— arian-arian eraiki zen, funtzio sozial argi batekin: hierarkia sozialak jabego eta eskumenen arabera antolatzea. Arrazak, funtzio horien mende asmatu eta antolatu ziren. Inperio kolonial bakoitzak egoera kolonial oso desberdinetan sortu zituen arraza-klase egitura bereziak, esplotazio beharrek bideraturik. Kasurako, Ipar Amerikako esklabo edo langile behartu asko egungo ikuspegitik zuriak izango ziren; belztasuna eta esklabotza identifikatzea ez zen erritmo berean egin Kariben edo Virginian. Europar edo zuri-identitateaz gaurko begiradatik hitz egin dezakegu, baina mundu kolonial goiztiar hartan bortxaz landu behar izan ziren, egin gabe zituzten. Prozesua ez da bukatu, izenak eta izanak aldatuta ere, jabego-klaseak dauden artean klase horiek naturalizatzen joko baita: prozesu soziopolitikoaren ordez, banakoen gorputzean edo ariman, aldaezinezko zerbaitekin arrazoituko dizkigu —eta zurituko— zapalkuntzak eta pribilegioak¹⁰.

Hasiera batean, sistema kolonialek kasta, arraza, estamentu edo klase asko sortzen jotzen dute, eta kasta arteko mugak, sarrerak eta elkar kutsatzeak estuki kontrolatu eta arautu behar dituzte. Eta muga eta bandoak dituzten sistema guztietan bezala kontrabando-moduak asmatzen dira, sistema bizigarria egiteko. Kontrabando identitarioaren ondorioak —kaste nahasketak, mugen sabotajeak, estatus eta kategoriak lausotzea, ihesaldi isilak, eta abar— kontrolatu ahal izateko identitate edo kategoria kolonialak ugaltu egiten dira. Sistema kolonialaren altzoan dauden bizi-harremanek, bizitzak berak, gainez egiten diote ordenari, berau atzetik dabil den-dena kontrolatzen duela, den-dena egituratzen duela, irudikatu nahian. Baina bizitzak arau eta mugen gainetik, debeku eta beharren gainetik, azpitik, barrutik eta alboetatik, edonondik ere, *diferentziak* sortuko ditu eta sistemak diferentziok kategoria bihurtu eta ordenatuko ditu botere-tresna izan daitezen, kontrol-bide izan daitezen —abstrakzio, arautze eta formalizatze juridikoen bitartez edota identitate-kategoria aldaezinen bitartez, adibidez—. Beharbada horrengatik guztiagatik, tentagarria da oso mestizoa eta zimarroia buruz buru jartzea. Zimarroia, finean, orain teorizatu ahal dugun askatze-praktika bat izan zen; mestizoa, ordea, hasiera-hasieratik ondo pentsatutako administrazio kolonialaren dispositibo bat. Areago, zimarroiak definizioz beltzak ziren, edo mairuak, hau da, garaiko espainiar ideologiarentzat jende beltz fedegabea. Logika horrekin, beltzekin nahasten ziren indio edo zuriak beltz kategoriara hurreratzen ziren. Mestizoa, berriz, indioak kristau kategoriara erakartzeko modua bilakatu zen.

10. Estatu Batuetako kasuan, langileen kontrol sozialerako arraza zuriaren eraikuntzari buruz ikusi «Ideología racial» atala Haider-en *Identidades mal entendidas. Raza y clase en el retorno del supremacismo blanco* lanean (Haider, 2020, 85-113. or.).

Mexikoren kasura itzuliz, Hernán Cortése, esaterako, abilidada handiz bultzatu zuen mestizajearen politika ezkontza, bortxaketa, bahiketa eta bestelako harreman behartuen bidez. Kolonia berrietako agintari indigenak eta europar kolonoen eta inbasoreen agintariak nahastu eta familiak eta leinu berriak sortu zituzten. Hori dena agente-hierarkia bat eratzeke asmatan, baina Indietara emakume gutxi pasatzen zirela kontuan hartuta erraz uler daiteke zein zen mestizoaren eginkizuna gizarte kolonialaren hastapenean. Cortésen itzultzailea, Malitzin ospetsua, hori denaren sinbolo bilakatuko zen, eta Mexiko nazio-estatu neokolonialak gogotik erabiliko zuen nazioaren batasuna gorpuzte aldera. Hala ere, «egiazko jende-nahasketarako» baino gehiago, mestizoa *indioa* ezabatzeko dispositibo bilakatu zen. Gizartean gora egiteko edo biziraute hutsean aurrera egiteko, indio izatearen zama arindu ahal zen mestizo kategoriari esker. Mestizoa espainiar jatorriko elite kreoleetara hurbiltzeko bide bihurtu zen, belztasun afrikar edo indioa zuritzeko bide. Ez da, jakina, goi-arraza eta goi-jendearentzako asmatu den kategoria, herri xumearen anabasa eta ugaritasuna gobernatze-tresna baizik. Espainiar kategoriara ez ziren goratuko, baina espainiar administrazio kolonialarentzat gobernagarriagoak izango ziren. Lehengo jakintzak, lehengo jendarte-egiturak, lehengo fede eta sentimenduak ezabatuta, mestizoa gorputz-gogoak molde berri batez menderatzeko teknologia izan zen.

Izan ere, indio kategoria, edo gerora erabiliko zen indigena, mestizaje psikopolitikoaren bidez ezabatzeko aukera eta beharra ez zen gizarte-beharretatik sortu besterik gabe. Mexikoko lurralde zabaletan, administrazio kolonialak esplotazio eraginkorrerako indartu zuen mestizajea, eliza katolikoak arimen agintearen monopoliorako erabili zuen bezala. Baina mestizo kategoriaren erabilera trinkoa, nazio-estatuak nazio-gorputz eta -arima homogeneous eratzeko garaian etorriko zen. Orduan, mestizoa neokolonialismo nazionalistaren egituratze sozial arrazista eta klasista legitimatzeko mekanismo gisa erabili zuten. Yásnaya Elena Aguilar hizkuntzalariak ederto azaldu digun bezala:

Mestizo kategoria ezinbestez *indigena* kategoriari kontrajartzen zaio, mexikar estatu-proiektuak sortu zuen bitako aurkaritza hori XX. mendean. Michael Swanton linguistak dioenez, *indigena* hitzak ez zuen gaur egungo esanahia garai kolonialean, XIX. mendean eman zitzaion esanahi hori. Espainiar inperioarentzat, lurralde honetan bizi ziren nazioak «indioak» ziren, eta kategoria hura kasta-sistema konplexu baten parte zen, sistema hura, hala ere, Independentziaren ostean mexikar Estatuarentzat bitara murriztu zen: indigena-mestizoa. Espainiar inperioarentzat indioak izan baginen ere, mexikar Estatuarentzat indigenak gara, nahiz eta egun bi hitz horiek baliokide gisa erabiltzen diren (Aguilar, 2018)¹¹.

Mestizoa arraza guztiak barneratu eta gaindituko zituen arraza kosmikoa zela iragarri zuen Jóse Vasconcelos filosofo mexikarrak. Agidanez, identitate mexikar

11. *Indio* kategoria sistema kolonialek sortu eta gero, estatu postkolonialek modernizazioaren izenean —barne-kolonialismo «burujabearen» orduan— erabat desagerrarazi nahian jardun dute. Indioa ezabatzeko politika izan da hori, *mestizo* kategoriaren mende *indigena* izan direnik ere senti ez dezaten. Ik. Guillermo Bonfil Batallaren lanak, esate baterako: *Utopía y revolución: el pensamiento político contemporáneo de los indios de America Latina*, Nueva Imagen, 1981.

metafisiko baten peskizan ari zen, praktika politiko eta sozialean indioak, beltzak edota «txinoak» *gizonezko zurtasun* ezaren kategoria pean ezartzen zituztelarik. Zimarroitza, berriz, sasijende suntsigarrien askatze-praktika izan zenez gero, praktikan garatu behar izan zuten batasun berri bat, beren arteko elkartasun berri bat. Beharbada erlijio eta hizkuntza dira langintza haren emaitza ezagunenak: budua eta kreolera. Eta hartan oinarrituta, mestizoaren estatu-proiektuari kontrajarri nahi izan zaion *kreoletasun (herri) proiektua* teorizatu dute Karibeko hainbat filosofo eta pentsalarik.

Criollo edo *kreole* hitzak hainbat adiera ditu. Oro har, amerikar kolonietan jaio eta hazitakoak dira, bertan *criados*, gehienetan europar jatorriko amerikarrak, eta salbuespen eskasetan amerikar jaiotako esklabo beltzak ere bai —hala da Brasilen, *crioulo* Afrikatik eraman ez den esklaboa baitzen, etxean bertan hazitako esklaboa—. *Criolloa*, mestizoa bezala, Kolonbia, Venezuela edo Ekuadorren, «bertakoak» harrotasunez batzeko erabili da. Nazio kreolea mestizajearen bidez amerikar jaio den nazio berria izango zen, independentzien gerren subjektua. Historikoki, hala ere, kreolea europar jatorriko elitearekin berdindu da gehien-gehienetan. Karibe aldean kreolera beste zer bait da, bertan jaio zen mintzaira eta hari eusten dion kultura.

Haitin, gainerako kolonietan bezala, tentu handiz sailkatzen zituzten esklaboak jatorriz desberdinak izan zitezen, horrela galtzen zuten beren arteko elkartasuna, beren mintzairak, ohiturak, edota sinesmen eta errituak (Renaut, 2009, 128. or.)¹². Hitz batez, beren indar soziala izan zitekeen oro. Esklaboak gazteak izan ohi zirenez ez zuten jatorritik memoria handirik eroango, baina hala nahikoa ez eta gainera debekatuta zuten beren hizkuntzaz hitz egitea: jabeek dena ulertu behar dute, esklaboek ezin dute sekreturik izan. Aginte totalizatzaileek egin ohi duten moduan, esklaboak banakatu zituzten haien elkarteak birrintzeko eta boterearen aurrean indargabeturiko banako hutsak izan zitezen. Eta, hala eta guztiz ere, memoria eta kultura gabeko gazte esklabo banakatu horiek elkarteak sortu zituzten. Esan bezala, frantses hiztun edo kristau fededun bihurtu barik, bizi-mundu berria, berena, sortu zuten. Bizibeharrez sortu ere.

Hizkuntza kreoleak nahasketa «desbideratuak» dira; unibertsaltasunaren mintzairekin bat egin beharrean —espainiera edo frantsesa ondo ikasi beharrean— aukera faltan eta bizibeharrez esklaboek asmatutako mintzoak, haien sormen eta asmamenaren testigu. Halan ikusita, zimarroitza ez da ihes hutsa. Esklaboek, ahal zutelarik, beren oldez bizitzeko mundu bat sortu zuten. Antza, zapalkuntzari aurre egiteko ez da nahikoa ezetz isila, ezta uko oldarra ere, bizimoduak eta bizi-sentierak sortzen dira zapalkuntza gordinen, erresistentzia- eta oldar-euskarri izan ohi diren subjektibotasunak.

12. Renautek Jacques de Cauna-ren lan hau erabili du: *Au temps des isles à sucre: histoire d'une plantation de Saint-Domingue au XVIIIe siècle*, Karthala, 1987. Han azaltzen du esklaboak banakatzeko eta isolatzeko estrategia hori.

Halatan, beste askotan bezala, Haitin bere eskuko izateko nolakotasunik ez zuten horiek, hutsarte eta heriotza sozialetik, mundu propioak sortu zituzten. Praktika zen, esan dudan moduan, baina egungo askori ezin erakargarriagoa egin zaio bai identitateak, bai subjektibotasunak, teorizatzeke. Bide hartatik ibili ziren Aimé Césaire edo Léopold Sédar Senghor, belztasunaren teorikoak. Eta berrikiago eta bestelako ikuspegi batetik, Édouard Glissant-ek hainbat lan politiko eta poetiko idatzi ditu harremanaren poetikaz, Deleuze eta Guattariren filosofiaren kontzeptuak baliaturik¹³. Horrela, kreoletasuna ideologia praktikoko gisa aurkeztu dute unibertsalismo abstraktuaren eta identitarismo partikularistaren arteko tentsioa gainditzeko duelakoan¹⁴. Hala ere, nire ustetan kreoleratik beste zerbait ikas dezakegu: kreoleran eta buduan afrikar erroak presente daude, eta haiekin batera jabe kolonialek inposatutako tresneria, dela frantses mintzoa, dela kristau-fedea. Alegia, eskura zituzten horiek denak baliatuta, ukatuek eta deserrotuek elkartasun sozial berri eta bereziak sortu zituzten edo, beste hitz bat erabiltzera, *subjektibotasun autonomoak* eta *singulartasunak*. Haietan *norbait* ziren eta bazuten bide bat *bere eskuko* izateko. Afrikako zainetatik erauzita eramane zituzten esklabotzara, bertan bota zituzten erro berriak beren arteko zain-sareak josiz. Haietan, elkarrekikoan, baziren *nor* jabearekiko *inor-er* zirenak.

Unibertsalismoek tranpa bat ezarri ohi diete partikularizatu, gutxiagotu, menderatu edo baztertu dituzten besteei: «ez zuri, ez beltz, denok mestizo» —edo nahiago izatera, «denok klase ertaina»— diote, finean, beltza zuriak mende behar duen osakidea dela ukatzeko, ahatarazteko. Gogo poetiko eta politiko humanista *xuriek* mezu hari eutsi diezaioke, zintzoek ere bai. Baina kreoletasunak, nire ustetan, belztasun gutxietsi eta esklabizatutik du zentzu osoa. Itzuliko naiz honetara, abiapuntua hemen utzita: gure europar arrazoi liberalaren bestalde osagarria, arrazoi horren eustarria, esklabotza da, mundu modernoaren arragoa izan zen gisa berean. Eta esklaboa *beltza* da, hala izanarazi duelako gure europar mundu zibilizatuak.

Beltza da bere eskuko izateko duintasunik ez duena. Horrela definitu baitzen *nor zen animalia* —dela esplotaziorako aberea, dela akabatu beharreko piztia—, *nor zen*, bestela esan, *masa heterogeneoa*, indar eta pasio guztien nahasmendua, eta *nor zen zibilizatua*, *zibila* edo estatuaren *jabe beregain homogenea*. Esklabotza da europar arrazoi gidariarentzat *bestearen* kondizioa. Beregain, libre, bere buruaren eta bere gorputzaren jabea gizon zuri burgesa da. Beltza, hala ere, ez da izan bakarrik jende mota baten zapalkuntza zilegi egiteko modua; maiz, norberaren baitan den praktika, aztura edo bizi-jarduna baita: nork bere buru *beltza* zibilizatu behar baitu. Ondo dakigu hizkuntza bezalako praktika sozial batek ere belztu egiten duela, gogoratu: «moroak gara behelaino artean». Moro edo mairu kategoria —finean, latinezko *maurus* beltza baita— zuritasun kristau oso-osorik ez duen edonori eta

13. Aurrerago, azken atalean, izango dugu Glissanten poetika eta politika hobeto ezagutzeko unea.

14. Esate baterako, *Éloge de la Créolité* (Bernabé, Chamoiseau eta Confiant, 1989).

edozeri zabaldu ahal zaio, adibidez, mintzaira beltz motz bati eta bera darabilen jendeari —nahiz eta beste guztian zuri kristau sarraskigile kunplitua izan—.

Beltza da bestea, beltza da esklaboa antonomasiaz. Frantzian, esklabotza arautzen zuen kodeak *Code noir* zuen izena. 1788an esklabotza indargabetzeko osatu zen elkarreak *Société des amis des Noirs*. 1808an argitaratu zen lan abolizionista sutsu baten izena *De la littérature des nègres* izan zen; azpitoluak zioen gisa «ikerketa bat haien adimen-ahalmen, gaitasun moral, eta literaturari buruz». Lana, nori opa eta beltz eta odol nahasien alde otoitz egiten zuten gizon guztiei opa zien egileak. Henri Jean-Baptiste Grégoire zen, Abbé Grégoire goitizenez ezagunagoa, apezpiku katoliko eta iraultzailea, esklabotzaren aurkako ekimen askoren buru eta hainbat txosten eta idazki abolizionistaren egile.

Grégoirek humanitatearen batasuna defendatzen zuen, jarrera iraultzaile eta kristaua uztarturik. Halako gisa jokatu bide zuen frantsesa unibertsalizatzeko eskaria plazaratu zuenean. Izan ere, euskararen historian —zapalkuntzan esan nahi baita— bidarri izan ziren txosten batzuen arduraduna izan zen Grégoire: *Universaliser l'usage de la langue française et éradiquer les langues dites régionales ou minoritaires*, eta Konbentzioan 1794an aurkeztu zuen egitasmo batena, *Rapport sur la Nécessité et les Moyens d'anéantir les Patois et d'universaliser l'Usage de la Langue française*. Esklabotza abolitzea, sufragio unibertsala eta frantsesa hizkuntza unibertsala izatea iraultzaren gizarte berriaren erabideak ziren abadearen ustetan. Finean, gizarte horren gizon berria nola taxutu behar zen ari zen irudikatzen. Hizkuntzaren batasuna lortzeko proposamena aski argia zen, *patois* direlakoak desagerrarazi behar zituztela zioen, «*l'éradication de ces patois*», eta haiekin batera hizkuntza kategoria merezi ez zuten berbaerak: yiddish, kreolera... Beltzei ere irakatsi beharko zieten frantsesa, askatuko bazituzten; izan ere, hizkuntza unibertsala zuen frantses zibilizatua zen gizon librearen moldea. Bestela esan, iraultzaileek basa-masa hezigabe eta atzeratua hiritarren nazio-masa bilakarazi behar zuten¹⁵. Ondo ezagutzen dugu egitasmo horren aje luzea: errepublika bat, banaezina, non askatasunaren mintzaira hitz egin behar den, derrigorrez.

... chez les Basques, peuple doux et brave, un grand nombre était accessible au fanatisme, parce que l'idiome est un obstacle à la propagation des lumières (Torrealdai, 1998, 25. or.).

Alta, Homogenozenoak ez ditu, oraindik ez, ez kreolera, ez euskara, iraganeko historiarekin berdindu.

15. «... pour extirper tous les préjugés, développer toutes les vérités, tous les talents, toutes les vertus, fonder tous les citoyens dans la masse nationale, simplifier le mécanisme et faciliter le jeu de la machine politique, il faut identité de langage». Ik. Torrealdai, 1998, 27. or. Horrez gain, *Rapportak* badu «kolonietako beltzei» buruzko iruzkinik: «Enfin, les Nègres de nos colonies, dont vous avez fait des hommes, ont une espèce d'idiome pauvre comme celui des Hottentots, comme la langue franque, qui, dans tous les verbes, ne connoît guères que l'infinif».

1.3. NEG MAWON ETA BWA KAYIMAN

Brontzezko gizonezko zimarroi handi batek irudikatzen du esklaboen borroka Haitiko hiriburuan, Port-au-Princen. Kreoleraz *Neg Mawon* du izena, *Le Marron inconnu de Saint Dominique* frantsesez, edo laburrago *Le Nègre Marron*. Horrela hainbat adiera batzen dituzte izenok: zimarroia, esklabo ezezaguna, marroia, beltza. Brontzezko gizon erraldoiak ezpata du esku batean, bestean dei-adarra. Matxinadarako deia egiten ari da, 1791ko iraultzan bezala. Erdi etzanda dago lurrian, altxatzen ari dela ondo erakusteko moduan, tentsioan dago, indar eta neke handiz jaiki beharrez. Ez dugu ikusten zerk zapaldu eta etzanarazi duen, ez dugu ikusten zer dela eta dagoen borroka hartan. Esklabista, kolonizatzaile, europar zuririk ez da ageri. Beharbada, Haitiko Iraultzan bezala zuri kolonizatzailea desagerraraziz esklaboen askatze-borrokaren unibertsaltasuna aldarrikatu nahi izan dute.

Neg Mawon esklabo matxinatu *afro-tainoen* sinboloa da, jarraipen baten sinboloa delako. La Españolan ez zen inoiz guztiz amatatu matxinaden sua. Horrexegatik joan zen irlatik azukrearen industria eta bertan behera utzi zituen etxaldeak eta azukregintzako *ingenioak*. Espainiar kolonoek, matxinadekin akiturik, zimarroien esku edo hutsik utzi zuten irlako parte handiena. Hori baliatuz, frantses bukaneroek eta filibusteroek mendebaldean sartu eta beren babestokiak eraiki zituzten. Luze barik, haien atzetik etorriko zen frantziar kolonizazio ofiziala. 1654an sortu zuten Saint-Domingue kolonia, eta 1660an, bukanero eta filibustero ohiek osaturiko kolonia berriak frantziar koroaren agintea onartu zuen. Hogeita hamazazpi urte geroago, 1697an, Bederatzi Urteko Gerrari amaiera eman zion Rijswijkeko itunean espainiar inperioak onetsi zion Frantziari koloniaren jabetza. Itun hari esker borboitarrek espainiar koroa bereganatu zuten, Frantzia-Espainia ardatza sortu eta, haren ondorioz ere, Espainiako Ondorengotza Gerra hasi zen. Finean, mundu koloniala eta Europa modernoa eratu eta definitu zuten gerren andana ia etengabeen beste gerra bi.

Saint-Domingue azukrea, tabakoa, anila, kafea, kotoia, indigoa eta beste produktu asko ekoizten zituen esklabo-faktoria ikaragarria bihurtu zen. Frantziako Iraultzaren bezperan Ameriketako frantziar kolonia aberatsena eta emankorrena zen. Jakina, estraktibismo hutseko kolonia eta frantziar kapitalen sehaska. Produkzio-mailari eusteko, eta heriotza-tasa handia zela kausa, milaka esklabo inportatu behar izan zituzten. 1787tik aurrera, 40.000 esklabo urteko. Esklabo gehienak gizonak eta oso gazteak ziren, bizi-itxaropena oso eskasa zuten, bertan jaiotakoek 15 urte batez beste, heldu berriek gutxiago. Makineria protokapitalistak nasaiki, axolagabeki, zerabilen heriotza.

Haitiko jendarte koloniala jendarte konplexu, nahasi eta oso bizia zen sistemaren egituratze formal eta zurrunaren kaltetan. Han ere sortu ziren kastak eta identitateen merkatu zein kontrabandoak, esan nahi baita, han ere gorpuztu ziren esplotazio eta bizi-harremanak. Zehatz esan, hiru kasta eta hainbat klase atondu ziren. *Blancs* edo

zuriak bitan banandurik zeuden jabego eta lanen arabera —zuri xume langileak eta jabeak— eta sorlekuaren arabera —europarrak eta kreoleak—. *Les gens de couleur* libreak ziren baina kolorearen estigmaren pean izen eta kasuistika ugaritan bereizirik: *affranchis* edo esklabo emantzipatuak, libertoak, sasizuriak, mulatoak... Eta jende gehienak, esklaboak, beltzak¹⁶. Kasta horiek, klase sozial arrazializatuak ziren, jakina. Klase bakoitzak balio eta eginkizun zehaztua zuen bizibideen eta ondareen produkzioan, erreprodukzioan eta banaketan. Katetoria juridikoak izateaz gain, katetoria moralak eta psikologikoak, afektiboak eta emozionalak ziren. Lehen esan bezala, esklaboei jendartea izaterik ukatzen zitzairen, baina bizibeharrez —esklaboak bizitzera kondenatuta baitaude jabeak nahikara guztiz esplotatu artean— landu behar izan zituzten beren arteko zaintzak eta beren arteko erro zein erreminta sozialak. Ezarian, jabeen eta librean gizarteen alloan, esklaboenak atondu ziren. Sistemaren barruan, eskura zituzten baliabideekin, beren arteko *kanpoalde intimo* berezia sortu zuten eta ihesak kanpoalde hura teritorio bihurtu zuten.

1789a Frantziako Iraultza burgesaren urtea izan zen. Lasai asko aldarrikatu zituzten urte hartako abuztuan gizonaren eskubideak, *Gizonarenak*. Badaezpada, aldarrikapenaren zentzu politikoa argi gera zedin *Gizonarekin batera Hiritarra* zetorren: *Déclaration des droits de l'homme et du citoyen*. Ondo jakina denez bi urte geroago paratu zuen Olympe de Gournes-ek emakumearen eskubideen aldarrikapena, hitzez hitz ispiatua: *Déclaration des Droits de la Femme et de la Citoyenne*¹⁷. Bi aldarrikapenen artean, 1790ean, esklabo zenbait matxinatu ziren Haitin, ez asko, 300 bat baino ez. Gupidagabeki jazarri eta zapaldu zuten altxamendua. Haitiko «koloreko» libreek ere ekimen zenbait egin zuten berdintasun politikoaren aldean. 1791ko udaberrian heldu zen Asanblea Nazionalaren aitortza, libre guztiak berdinak izango ziren eskubide politikoetan. Zuriak, alabaina, ez zeuden oso prest aldaketa hori onartzeko. Laster, udara aldean, gauzak erruz irauliko ziren.

XVIII. mendearen erdian Saint-Domingueko *marronage*etan bat nabarmendu zen, François Mackandal *houngans*-ek —budu-sazerdoteak— gidatutakoa. Ez zen anekdota hutsa izan. Budua esklaboen artean sortutako sinkretismo erlijiosoa izateaz gain, esklabo eta zimarroien bilbadura sozial eta kulturala zen, haien jendarte

16. Egitura sozialari buruzkoak eta kasta eta klase sozial arrazializatuen edota esklaboen protagonismoari buruz, ik. Fick, 1990. Bestalde, kalkulu asko egin dira esklaboak zenbat izan zitezkeen jakite aldera. Zehatzak izan barik ere, kolono zuriak berrogei mila inguru ziren, koloreko jende libreak beste horrenbeste gutxi asko, esklaboak, berriz, lauhun milatik gora.

17. Hirugarren atalean azalduko dut zehazkiago zergatik, baina aurreratu dezadan hemen *hiritar(tasun)* hitzari buruzko ohar bat. Gure kultura politikoan *herritar* egokiagoa bada ere, Hiriaren kontzeptuak berak estatus zibiko, zibil, zibilizatu edo, zuzenean, estatuarekin eta politikarekin duen lotura historiko eta ideologikoa agerian uzteko, erdarazko *citoyen*, *ciudadano* eta abar *hiritar* itzuliko ditut. Hiritar hau ez da kaletarra edo urbanoa, ez da baserritarraren bestea; nobleen bestea baizik. Iraultza burgesaren aurreko Europan hiritarrak —*burgese* edo *villano*— nobleen edo leinargikoen aurkariak ziren, hirietako biztanle libreak, lokarri feudaletatik libre omen zirenak, hain zuzen. Deklarazioetan adiera horien aztarna oso agerikoa zen: hiritarra gizon librea zen, iraultza burgesarekin hiri fisikoaren alderdi juridikoa erresuma osora zabalduko zen, erresuma osoa Hiri handi bat izango zen, hiritarren estatu orokorra.

propioa sortzeko sinesmen eta errituen sarea. Budua zen zimarroitza espirituala eta komunitarioa. Ildo horretatik, iraultzaren jaiotza mitikoa ere budu-ospakizun bat izan zen. 1791ko abuztuko erdialdeko gau bero batean, *Bwa Kayimena* —Bois Caïman edo Kaimanaren Oihana— deritzon baso barrenean batu omen ziren berrehun esklabo inguru. Burua Dutty Boukman omen zen, ondoan zuen Cécile Fatiman sazerdotisa. Ospakizun mitikoari itsatsita otoitz mitikoa ere heldu zaigu. Otoitz hartan Boukmanek jaun zurien jainkoa eta beltz esklaboen jainkoa aurrez aurre jartzen dizkigu. Zurien jainkoak, *Bondye blan*, krimenak nahi ditu, krimenak agintzen ditu: «*Bondye yo a mande krim!*». Esklaboen jaunak, berriz, ongia; ongia eta mendekua. Izan, otoitza borrokarako deia da, bihotzetatik berbetan ari den askatasunari entzuteko erregua. Baina, jakingarria da esklabo horien irudikoz nahitaez bi *bondye*, bi jaun on edo jainko zirela munduan. Bi printzipio sortzaile, bi ordenamendu: esklaboena zurienaren aurka. Aurrena, askoz errukiberagoa.

Bondye ki fè soley, ki klere nou anwo, ki souleve lanmè, ki fè loraj gwonde. Zòt koute, Bondye sila kache nan nyaj! E la li gade nou, li wè tou sa blan fè. Bondye yo a mande krim! Pa nou vle byenfè, men Bondye ki si bon òdone nou vanjans. Li va kondui nou, li va ba nou asitans. Jete imaj dye blan ki swaf dlo nan je nou. Koute kè an nou ki rele libète!¹⁸

Haitiko Iraultza ez zen izan aste gutxiko errebolta bat. Hamar urte baino gehiago iraun zuten borrokek, mota guztietako erasoek eta gehiegikeriek. Urte haietan plantazio eta etxalde ugari erre zituzten, hainbat hiri suntsitu, eta jendeak pilaka sarraskitu. Esklabotzak, erein zuen oinazea jaso zuen uzta gisa. Nahaspila hartan aliantzak ere erraz aldatu ziren. Gerran jardun zuten frantziar monarkiko eta iraultzaileek, espainiarrek eta ingelesek, libertoek eta esklaboek. Denak denen kontra, denak denen kide: libertoak zimarroien kontrako milizietan zurien kide, zimarroiak frantziar iraultzaileen kide monarkikoen aurka, zuri xumeak handikien aurka liberto eta zimarroiak kide zituztelarik... Tartean, gainerako potentzia kolonialak ere gerran sartu ziren matxinada nagusituko eta Karibe eta kontinenteko kolonietara zabalduko ote zen beldur.

Esan bezala, istiluek eta gerrek luze iraun zuten etengabeko soka batean. Itsas mareak bezala, bandoen hegemonia-uneak gora eta behera etorri ziren. Behin eta berriro saiatu ziren frantsesak kolonia mendean hartzen, eta behin eta berriro aurrera eta atzera egin zuten matxinoen bandek. Iraultzaren gorabeherak antolatze aldera historiagileek faseka azaltzen dute gertatua, argi samar dago noiz hasi zen, hasiera-une mitiko bat ezarri da horretarako, baina ez noiz bukatu zen. Zimarroien matxinaden tradizioak eta Frantziako Iraultzak bat egin zuten hasierako pizgarrian,

18. François Bourgeon-en *La Petite Fille Bois-Caïman* komiki bikainetik ekarri dut kreolerazko bertsio hau: *La Petite Fille Bois-Caïman*, Glenat, 2009. Euskaraz, gutxi asko: «Eguzkia sortu zuen Jainkoa, argia goitik ematen diguna, itsasoari eragiten diona, trumoiak jotzen duena. Entzun guztiok! Jainko honek, hodeietan ezkutaturik, behatu egiten gaitu, zuriak egiten duen guztia ikusten du. Zuriaren jainkoak krimenak egiteko agintzen du! Gureak lan onak eskatzen dizkigu, baina, Jainko ona izan arren, mendekua har dezagun agintzen du! Berak gidatuko gaitu, berak lagunduko digu. Bota ezazue zurien irudia, guregan negar-mina nahi duena, entzun ezazue guregan oihu egiten duen askatasuna».

geroko gertaeretan irlako barne-tentsioek, frantziar errepublikaren garapenak, eta potentzia kolonialen arteko ika-mikek elkarri eragin zioten. Haitin ez zen egon Bastilla bat, ezta errege baten burua gillotina pean ere. Paristar iraultzaileek erregeari burua ebakiz, erregimen zaharra bertan behera bota eta erregimen burges berriari ateak ireki zizkieten. Haitiko beltz matxinatuek, berriz, Gizonaren unibertsaltasunari lepoa mozteko egokiera izan bide zuten, baina ondorioak eta ondorengoak ikusita, hori izan zen iraultza hartan kamustu zen aukera. Iraultza garailea izan arren, mundu kolonialeko kreatura eta kreatzailea, Gizona, nagusituko zen. Sylvia Wynter-ek, Karibeko beste ahots esanguratsu batek, *IGizona* deitu zion gailendu zen «subjektuari». Izan, IGizona, edo *homo politicus* delakoa, europar inperioek Abya Yalako jendeak eta lurak menderatzeko izan zituzten auzi teopolitikoetan landu zuten erantzuna izan zen. Geroago berrartuko dugu IGizonaren sorreraren auzia, une honetan, Haitiko Iraultzaren orduan, IGizonaren ordurik loriosenean omen gaude¹⁹.

1792ko apirilean iritsi zen irlara Asanblea Nazional Iraultzailearen aginte-ordezkaritza. Sei mila soldadu zekartzan aurreko urtean hasitako erreboltak zapaltzeko asmoz. Soldadu horiek bermatu behar zuten Iraultzaren ordena berria Haitin: gizon libre guztiek berdintasun politikoa izango zuten, esklaboek esklabo segituko zutelarik. Esklabo matxinatuen kontrako gerrak bere horretan jarraituko zuen ipar aldean. Urte bete igarota, 1793an aldarrikatu zen esklabotzaren abolizioa, ez zen izan, hala ere, behin betiko erabakia eta ez ziren horrela amaitu gatazkak. Urte hartako abuztuan, Toussaint L'Ouverturek, errege-armadako jeneralak, bere lidergoa eskaini zion matxino-masari, berbaldi laburra bezain sutsuan askatasunaren eta parekotasunaren aldeko borrokarako eta «esklabotzaren zuhaitza» elkarrekin botatzeko deia egin zuen. Behin baino gehiagotan erabiliko zuen zuhaitzaren metafora. Frantziara atxilo eraman zutenean ere oihan ilunean ernatu zen mugimendua eta berak gidatutako iraultza «askatasunaren zuhaitza» zela esan zuen. Zuhaitzen metaforan hala moduz egokitu zituen Kaiman basoko jainkoak, baina askatasunaren zuhaitza ez zen beltzena soilik, unibertsala bide zen. Bistan da, metafora, Frantziako Iraultzaren markoan zerabilen L'Ouverturek.

Toussaint L'Ouverture ez zen edonor. Afrikar errege-kasta bateko ondorengoa omen zena esklabo jaio eta libre izatera ez ezik, esklabo-jabe izatera ere ailegatu zen. Iraultzarekin batera bere burua erabat aldatu eta *subjektibazio politiko* eredugarri bati ekin omen zion (Nesbitt, 2008). Diskurtso, berbaldi eta gutunetan behin eta berriro erabiliko du frantsesen erretorika. Iraultza unibertsalaren aurrean, «aberrian» gertatzen ari zen iraultzaren aurrean, gizaki guztiak berdinak direla aurpegiratzen die legezko frantsesei, Gizonaren Eskubideen Deklarazioa aipatzen

19. IGizonaren eskutik etorriko zen, geroago, 2Gizona, kapitalismoaren protagonista, *homo oeconomicus*-a. Paradigma darwinistaren laguntzaz, Gizon arrazionalak txanda emango zion naturak hautatutako Gizon lehiakorrari. Jainkoak, Historiak edo Naturak beti hautatu dute europar Gizon jabea, hautatu barik geratu diren guztiak, bestelako *humano* baten zain geratu direlarik. Horregatik, humanismo kritiko batetik, humanismoaren kritikatik, Sylvia Wynterrek dio «humanoa ez da oraindik heldu». Hautatu gabeek hirugarren jazoera bat behar dute. Esan beharrik ez dago, liburu honen ardatz bat Wynterren pentsaera da (Wynter, 2003, 257-337. or.).

die, behin eta berriro segurtatzen die jabegoak errespetatuko dituela, legea eta ordena maite dituela, kristautasuna babestuko duela... Hori dena jasoko zuen Saint-Domingue koloniarentzat 1801ean bultzatu zuen konstituzioan. Hala, esklabotzaren debekuarekin batera, jabegoa sakratua eta erlijio katolikoa bakarra izango zirela jaso zuen konstituzio hark²⁰. L'Ouverturek frantses librea izan nahi zuen. Frantziak beltz esklaboak nahi zituen, ordea.

Napoleon da L'Ouvertureren *bestea*. Haren aginduz ailegatu zen irlara hogeita hamar mila soldaduko espedizioa, xede bakar batekin: L'Ouvertureren armada garaituta esklabotza eta ordena koloniala bere osoan berrezartzea. Hortik aurrera, L'Ouvertureren patua iraultzaren halabeharraren erakusle on bihurtuko zen. Frantziarrak lasaitu nahian, irlan «ordena» ezartzeko asmoz hartu zituen neurriek matxinatuen artean zuen karisma larriki kaltetu zuten. Ulertzekoa da neurriak zein ziren irakurrita: plantazioen ekonomia gorde, zuri jabeak errespetatu, beltzak lanera behartu, katolizismoa erlijio ofizial gisa ezarri, irla erdia Frantziaren esku utzi, eta 1801ean autonomia bat deklaratu. Hala ere, Napoleonek agente koloniala lehengoratu nahi zuen, ez bakerik eman. 1802an L'Ouverturek bere burua eskaini zuen bakearen truke. Preso hartu zuten, segituan Frantzia aldera bidali eta bertan urte bete eman ostean hil egin zen, espetxean gaixo eta bakarturik. Frantziak eta inperio kolonialek ez zuten inongo asmorik beren *aurrerapena* oztopatuko zuen aldaketarik onartzeko.

L'Ouverturek, bere azken hitz ezagunetan, askatasunaren zuhaitza behin eta berriro hazi eta loratuko zela esan zuen. Erro sakonak zituelako. Horregatik, agian, L'Ouvertureren faltak ez zuen ezer gelditu. Beraren armadako lotinanteak, Dessalines-ek eta Christoph-ek, ez zuten etsi eta, *Liberté ou la mort!* lelopean, 1803an azken frantsesa bota zuten irlatik. Lezioa ondo ikasita eta urrunago joan beharra zegoela ikusita, atzapar kolonialetatik salbu egoteko eta esklabotzaren bukaera ziurtatzeko beste biderik ez zegoelakoan, 1804ko urtarrilaren hasieran independentzia aldarrikatu zuen une hartan botere efektiboa zuen Jean-Jacques Dessalinesek. Estatu berriari Haiti izen tainoa eman zion, bere burua Jacobo I.a Haitiko enperadore izendatzen zuen aldi berean. Napoleonen eredia ez zegoen oso urrun. Frantziako Iraultzarena ere ez: iraultzaren fase bat izan zen independentzia, ondoren etorri zen odol-bataio bat, Frantziako Iraultzaren Izualdiaren modura, nonbait. Izan ere, Dessalinesek bertan geratzen ziren «barbaroak» akabatzeko deia egin zuen, beren krimen guztiak larrutik ordain zitzaten. Zuri kreoleak eta mulato asko akabatu zituzten, hiru eta bost milaren artean. Hala, estatu bat izan behar zuenak luzaro errotutako gorroto baten mendeku-gosea berdindu zuen, esklaboen nazioa ere «erazko nazio» bat izan zedin.

1.4. HAITIKO IRAULTZA, MODERNITATE PENTSAEZINA

Hamar urte baino gehiagoko borroka baten ondorioz, Indietako koloniarik emankorrena, aberastasun gehien ekoizten zuen makina koloniala, munduko lehen

20. L'Ouvertureren testuak eta 1801eko konstituzioa Nesbitt-en *Toussaint L'Ouverture. La revolución haitiana* lanetik hartuta (Nesbitt, 2013).

estatu beltza bilakatu zen. Potentzia kolonialek ez zuten erraz onartu independentzia, urte asko joan ziren Haitiren subiranotasuna nahigabea aitortu behar izan zuten arte, bitartean estatu jaioberria sehaskan itotzen saiatu ziren blokeo ekonomikoen bitartez. Haitin bertan ere barne-gerrak, istiluak, ustelkeriak, edota agintea lortzeko lehiak ez ziren apaldu. Iraultza osteko Haiti hura «zegokion lekura» eraman zuten inperio kolonialek: anomalia ahalgabe bat izatera, zulo bat, hutsune bat, amesgaizto eta fantasia asaldagarrietatik kanpo izendatu behar ez den *beste*a izatera. Haiti infernuaren hurrena den ezinezko gizartea, jaiotze-estigma batek kondenaturiko afrikar jatorriko anabasa soziala baino ez da. Europak hala irudikatuko du. Ez da soilik Edward Said-ek kritikatu zuen *bestetasunaren* gutxiespenezko edo gaitzespenezko irudikatze bat (Saïd, 1978), Haitiren kasua ahanzmendu sintomatiko baten kasua izan da. Michel-Rolph Trouillot haitiar historiagileak esana du Haiti Mendebaldeko pentsamoldean *jazoera pentsaezina* dela, gertatu ezin den gertaera (Trouillot, 1995)²¹. Ezin gertatuzkoa zenez, gertatu zen iraultzak *tragedia irrazional* bat izan behar zuen, nahitaez. Oraindik ere, Haiti piztien lurraldea da, herrialde txiroa, porrot egindako estatua, indarkeriaz betetako gizartea, modernizatu gabekoa, demokrazia edo gizarte zibil bat eratzerik lortu ez duena, budu-erritu irrazionaletan murgilduta... Gure fantasia zibilizatueta, Haitik bere patua bete-betea kunplitu du.

Iraultzak gogor kolpatu zuen europar agintarien, merkatarien eta kolonoen kontzientzia. Arazo teoriko-ideologikoaz harago, interesen kontzientzia praktikoa kolpatu zuen gogorren. Eta beren buru-estimua zibilizatu eta aurrerazalea ere kolpatuko zuen, Hiritarraren ideologiaren muina Jabearen ideologia izan ez balitz. Urrun zegoen Haiti Frantziako Iraultzaren (erazko gizonen) *askatasuna*, *berdintasuna* eta *anaitasuna* lelotik. Nola aitortu halako ideal gorenak basajende beltz hari?

Ondoriorik izan al zuen Haitiko Iraultzak? Historiagile batzuek baikortasunez begiratzen diote iraultzaren ekarpenari: «Esklabotza gaindituta giza askatasuna gauzatuz, eskubide naturalen unibertsaltasuna oso-osorik bete zedin bultzatu zuen» (Fick, 2007, 394-414. or.). Iraultzaileek, nonbait, askatasunaren, berdintasunaren edota humanitatearen esangura europar ilustratuek baino harago eraman zuten. Antza, zerumuga berri bat ireki zuten emantzipazioaren borroka unibertsalean. Horixe da, esaterako, James-ek, Haitiko Iraultzaren aztertzaile marxista klasikoak, *Jakobino Beltzak* liburuan defendatu zuena (James, 1989 [1938]). Jamesek Saint-Domingueko matxinada, Haitiko jakobino beltzen iraultza, Frantziako Iraultza burgesaren zurrumbilo historikoan ulertu behar zela zioen. Frantziar jakobinoen antzera, Toussaint L'Ouverture giza askatasunaren aldeko borrokalaria zen, humanitatearen borroka unibertsalean engaiaurik. Hala izan ala ez, L'Ouvertureren patuak gutxi du Robespierren ospetik. Dena den, Jamesen tesi hura 1938koa da, orduko baia liburuen lehen bertsioa. 1963an argitaratu zenean eranskin bat

21. Trouilloten lana argitaratu zenetik gogoeta eta ikerketa asko egin da Haitiko Iraultzaz, pentsaezina izan zena pentsatzeko ahalginak ez du lehengo historia aldatuko, ikusteko dago gerokoa aldatuko duen. Haiti isildutako bestelako modernitateetako bat delako tesiaz, Sibylle Fischer-en *Modernity Disavowed: Haiti and the Cultures of Slavery in the Age of Revolution* (Fischer, 2004).

zuen Haitiko Iraultza garaiko borroka antikolonialekin lotzen zuena eta Toussaint L'Ouverture eta Fidel Castro borroka-tradizio berean kokatzen zituen. Orduan, borroka unibertsal bat irudikatzen zuen, zeinak garaian garaiko tresnak erabili behar dituen eta esplotazio-harremanak deuseztatzeko garaiko esplotazioari aurre egin behar dion. Jamesen begiratuan, Haitiko Iraultza Mendebaldeko historian ulertu beharra dago, ez dago muin betiereko eta garbiro librea borrokan, ez da esplotazio-harreman aurreko ezer edo inor borrokan, esplotazioak berak sortzen ditu bere kontrako eragileak. Esan dut gorago, *bestea* da europar modernitatearen egia. Hala esan, europar edo mendebaldar hedapenaren egiaren bertsio laburtu bat honako hau izan liteke: izaki eta izaera guztiak esplotatze aldera, ahal izan duen orotan *besteak* suntsigarri bihurtu ditu, *bera*-ren metabolismoan irentsi ditu energia bihurtuta edota erabat deuseztatuta. *Bera*, azken buruan, mundu-sistema mendebaldarra izan da. Baina uler dadila, *bestetasuna* konkistak konkistatuari, koloniak kolonizatuari, esplotazioak esplotatuari eragiten dion *egoera* da, ez berezko izaera ontologiko bat, ez bere izanaren osotasuna, ez bere patu historikoa.

Bestalde, ezin zaio europar modernitateari askatasunaren, parekotasunaren eta elkartasunaren monopolioa esleitu. Modernitate europarrak monopolio hori bereganatu nahi izan du dimentsio horiek europar zibilizazio batek asmatu balitu bezala. Humanoen kondizio ontologiko, historiko eta aldakorrari begiratu beharko genioke tentuz, izenak izen eta izanak izan, jende soziosinbolikoaren izate-era ez baita ulertzen tentsio horiek barik. Aurrerago aztertuko dut izate soziosinbolikoaren bilakaera ontologikoa. Modu askotara izan dira humano-jendeak libre, adiskide, parekoak eta hamaika modutara borrokatu dute horren alde. Oraindik ere, *humanoa* tentsio horietan ari gara sortzen. Alde horretatik, zimarroitzan errotutako estatuaren ekarpen ausartena beharbada 1805eko konstituzioak ekarri zuen berritasun bat da. Esklabotza debekatzeaz gain, haitiar guztiak, larruaren koloreari jaramonik egin gabe, beltzak zirela xedatu eta aldarrikatu zuen: «Hemendik aurrera haitiarrak soilik *beltz* izen generikoaz izango dira ezagun». Alegia, belztasuna, eskubiderik ezaren marka, eskubidedunaren kondizio bilakatu zen. Horrela, esaterako, haitiarrak zirelako, Napoleonen kontrako borrokak hara eramandako alemaniar eta poloniar soldadu asko *beltz* bilakatu ziren. Beltza, esan dut, *bestea* da; Haiti besteen estatu gisa agertu zen. Belztasuna kategoria juridiko-politiko eta nazio-kidetasunaren ezaugarri bihurtzea ez da huskeria. Bere eskuko eta beregain izatea ukatuta zutenek ukazioaren kategoria bera jarri zuten estatu anomalo haren oinarrian. Horretan, Jacques Rancière filosofoak teorizatu duen modura, parte ez den parteak bere buruari eman zion osotasunaren maila. Esan barik doa, beste parte ukatu asko ziren tartean, baina esklabotzaren gizartean kontaketa orokorra egiten zuen funtsezko banaketa esklabo/beregain diferentzia zen. Belztasunak izan behar zuen haitiar herritarren subjektutasun politikoaren zehaztapena, belztasuna zelako ordura arte Haitiko esklaboak objektu izatera lotu eta kateatzen zituen zehaztapena.

Aldarrikapen hori erabili dute hainbatek esateko Haitiko Iraultza izan zela XVIII. mendearen hondarretan izan ziren hiru iraultzetan —Estatu Batuak, Frantzia,

Haiti—oreren eskubide alienaezinen baieztapena baldintzarik gabe betetzera jo zuen bakarra²². Ospe irabazi berria, beraz. Iraultzaren teorietan ostendurik egon eta gero, Haitiko Iraultzak protagonismoa irabazi du azken hamarkadetan. Toni Negri, Michael Hardt edo Slavoj Žižek filosofo ezagunek, adibidez, bakoitzak bereari argudioak eman nahian, erabili baitute, ondo egokituta, «Haiti ez-jazoera»²³.

Halatan, Modernitatearen historia integral, kritiko eta ulergarri bat osatu nahian, historia haren eragile nagusiak zein izan diren zehaztu nahi denean haitiar iraultza europar globalizazioan txertatu ahal da, europar historian norbait, *subjektu*, izatera gonbidatuta; alegia, Haiti guztien egiazko zentzua europar historiaren magalean aitortua eta onetsia izatea balitz bezala. Maizegi dirudi Haiti ahanzturatik ekarri nahi dutela Modernitatean egokitzeke, eta Modernitatearen bertsio onargarria egiteko, bertsio bat non Modernitate europarra ez den kolonialismoa eta zapalkuntza, baizik eta antikolonialismoa eta askatasunaren aldeko borroka. Ikuspegi horretatik, europar balio unibertsalek ematen diote zentzua Haitiko Iraultzari, haiek esplikatzen digute Haitiko anomalia. Kontrako irakurketa egingo nuke nik, Haitiko Iraultzak ematen die zentzua europarrak —soilik— ez diren balio unibertsal haiei. Haiti da unibertsalaren egia, eta harekin batera mundu osoan zehar izan diren Haiti xehe eta handi guztiak; berak baitira unibertsal guztiei ateratzen zaien *minbizia*, alegia, ukatuen singulartasun (anti)unibertsal bizia.

Hezi eta egokitu al dugu haitiar anomalia Homogenozenoaren bertsio zibilizatuan, alegia, Modernitatean, logika unibertsal baten sintoma edo erakusle izan dadin? Disפש Chakrabarty-k Haitiko Iraultza hezteko ahaleginak kritikatzeko pista bat ematen digu (Chakrabarty, 2008, 34. or.). Dioenez, europar pentsamendu historizistak argi du zein den legea: «aurrena European, hurrena beste nonbait». Ez da beti kronologikoki bete behar den legea, aski da beharrezkotasun logikoa erakustearekin. Kolonietan besterendutako harreman, praktika, jende edo bizidun ororen ekimen askatzaileak eta sortzaileak kolonialismoaren munduaren argipean ulertu behar dira. Europak eman al zion Haitiri iraultza, askatze-praktika eta diskurtsoa? Edo Afrikatik eraman zuten esklaboek? Berezko dute jendeek aske eta beregain izateko nahia, edo gutxienez hala direla sentitzea? Zein harremanetan, nola, gauzatu ahal da nahia? Europak, Mendebaldeak, bere kasa eraiki duen historiaren emaitza ote da edo hamaika eratan agertuko den jende ororen nahia?

22. Esate baterako, ik. Hallward, 2004.

23. Hardt eta Negriren ustetan Haitiko Iraultza errepublika eta Modernitatearen forma ideologikoaren kontra borrokatuz, haien substantzia instituzional eta materiala gauzatzen saiatuko zen. Spinozaren ontologia politikoa edota Foucaulten biopolitika lotzen dituzte esklaboek erresistitzeko gaitasunarekin. Haiti erresistentziaren alter-modernitate baten eredu izango litzateke. Eta, arestian esan bezala, gaurko borroka-eredua: testuinguru biopolitikoan klase-borrokak zimarroitzak gisako exodo baten itxura hartzen duela diote, baina zimarroitzen ez bezala gauden tokian bertan produkzio-harremanak eraldaturik. Lan biopolitikoak ihes egingo lioke kapitalarekiko morrontzari, harreman berriak sortu eta produkzio-ahalmenak askatuko litzuzke (Hardt eta Negri, 2009, 164. or.).

Kasuari dagokionez, mesfidantzaz begiratu beharko genioke, nire ustetan, Haitin iraultzaren unea nabarmendu eta zimarroitza luzearen erroak gutxien edo zeharo ahanzten dituenari —baita zimarroitza borroka-eredu unibertsala egin nahi duenari ere, bidenabar esan—. Zimarroitza ihesa zen, esklabotzaren tormentutik, lan behartuetatik, torturetatik, umilazioetatik ihes egitea. Halaber, zimarroiak erasoak bizi edota iraun behar hutsagatik egindako erasoak izan ziren, ez, baina, proiektu arranditsuak. Europar ilustratuen ideologiaren beharrik gabe afrikar esklaboek bazituzten buduaren sostengua, beren arteko kultura- eta jendarte-harreman biziak edota elkar laguntzeko sareak. Horiek denak sistemak utzitakoa arrakaletan, tarte eta zirrikitu libreetan. Esklabotza kolonialak ez zituen esklaboak bere osoan egiten, ez zen iristen haien subjektibotasunaren ontologia oso-osorik harrapatzera. Zimarroitza, kreolera, edota budua, harreman-sistema krudel baten mende bizibeharrez —bizi-behar sozial eta sinbolikoaz— afrikar esklaboek ehundu zituzten subjektibotasun komunak izan ziren. Beren bizi-munduak galduta, indio kulturagabetuak lagun zituztela, deserroturik bizitzera behartu zituzten, baina bazuten *errorik*, alegia, zirenetik eta zekitenetik aritu ahal izan ziren erresistentzia-hegaldi hartan, eta, oroz gain, beren artean *zain berriak* eginez hegaldatu ziren esklabotzaren infernutik.

Esklabotzak sortu zituen zimarroiak. Arian-arian jatorrien, hizkuntzen edo sinesmenen heterogeneotasunetik, borrokaren eskarmentuan erkide zirela, frantziar menderakuntza kolonialaren azpian eskura zituzten baliabideak erabiliz nahaste zehaztugabe eta aurreikusi ezinezkoa moldatu zuten. Halaxe, ekin eta ekin, paratu zuten mintzaira ilauna, zarpaildua eta zirpildua. Halaxe, matxinadak eta iraultza. La Españolak zimarroiak, Saint-Domingueko matxinoak edo Haitiko iraultzaileak, finean, Europak definituriko eremu sasiunibertsalean jokatu zuten, esklabotza kolonialaren mundu deserrotuan; ihesean nola, mundugintza propioan hala: zain berrietatik elikatutako subjektibotasun transindibidualak ehunduz, duintasuna elkarri emandako norizanetan gauzatuz, *humano* titulurik gabe bizilegeak taxutuz... Haitiko Iraultzaren sustraiak, nolabait esan, hor daude²⁴.

Haiti, estatu moduan, historia luze baten une bateko ondoriotzat jo dezakegu. Historia kolonialismo eta esklabotzaren *aurkako historia* da, jende asko eta oso diferenteen askatasun-nahia, duintasun-nahia, etxe-nahia, bizi-nahia... Eta unea, berriz, Frantziako Iraultzaren aro politikoa, orduko diskurtsoak, praktika eta erritu politikoa. Komunitate zimarroi asko bizi izan dira Ameriketara, aski independente, estatu «homologarria» izatera iritsi gabe. Baina Haiti ez zen horretara bideratu Frantziaren inperialismoak ez zuelako mugarik onartu nahi. Matxinada eskari erreformista gisa hasi bazen ere, iraultza eta estatu-eraikuntza bihurtu zen, zeren frantziar unibertsalismoak ez baitzuen *besterik* onartzen. Bestelako aterabiderik ematen ez zuen joko-eremu hartan jokatu behar izan zuten, bertan askatu zen ondo errotutako zimarroitzaaren energia psikopolitika²⁵.

24. Liburuaren azken ataletan azalduko ditudan kontzeptuak eta terminoak dira horiek guztiak.

25. Haiti masaren emaitza da. Esklabotzaren aurka buru-bihotz engaiaturiko masa baten emaitza, ez armada edo alderdi edo elkarte edo erakunde formal batena. Oinazez oinaze borrokatu zen herri bat.

Baina, eremu hark beste osagarri bat du. Modernitate globalizatzaile eta homogeneousatzailean ohikoa den gogoeta-ildo politiko bat: iraultza integralen ikuspegitik —gehienetan, estatu-iraultzak—, zimarroien borroka beti da partikularra, beti da osatugabea, beti da ez-nahikoa. Eta, joko-eremu hori ezarri delarik, arrazoi osoa du ikuspegi hark. Badirudi, soilik ezarritako unibertsalari parez pareko erronka botaz gero dutela aukerarik besterenduek, ukatuek, beste suntsigarri izatera behartuek. Haitik halaxe egin zuen, frantziar inperialismo kolonialari «ezer ez naizen nerau zu adinakoa naiz» esan baliote bezala. Dena den, anomalia jasanezina ez da basabesteak piztien antzera basoan libre bizi nahi izatea, egiazko haustura erdiragarria *oihan barneko beltza* zuri burges zibilizatuaren parean jartzea da. Haitiko anomalia jabearen mailan, parez pare, jarri zen zimarroia izan zen, beltz subiranoa. Beltza eta subiranoa bi erregistro oso diferente iruditu arren, harreman bat —esklabotza— izateko moduak baino ez dira. Itxuraz, joko-eremu hartako harremana suntsitzeko, esklaboak ezin zuen, zimarroien antzera, ihes egin; subiranoa izan behar zuen, sikiera jabearen subiranotasuna sastarretara botatzeko.

Unibertsalismoa bizi-munduak bitan banatutako mundu bakar bat egiteko tresna izan da: unibertsaltasunaren onurak merezi eta merezi ez zituztenen artean banandurik. Kolonia *bestalde* zen²⁶. Sistema kolonialak, europar inperioen eta nazio-estatuaren motorra eta kapitalismo zein industrialismoaren sorlekua izan zenak, logika sinplea du: bada bestalde bat zeina aurkitu, inbaditu, konkistatu, menderatu, zibilizatu eta azkeneraino esplotatu eta administratu behar den. Hartarako justifikaziorik behar izanez gero, Egiazko Fedea edo Arrazoi Unibertsala tarteko, arrazakeria, patriarkalismo zaharberritua, edo barne-kolonizaziorako nekazari, ezikasi, analfabeto edo alofonoenganako mespretxuak ondo kokatu ahal ziren Aurrerapenaren logikan. Aurrerapenak atzean uzten ditu atzeratuak, *berez* atzeratu omen diren horiek eta *gizatasun* osorik ez dutenak, noski. Inperio kolonialek aberastasuna sortzen, ateratzen eta metatzen jarraitzeko arrazismo gordinari eutsi eta «gizatasuna», beste *jabego* baten modura, gizon europar burges hiritarren esku utzi zuten. Alain Badiou-k dio printzipio unibertsal oro erabaki ezinezko hautua edo balio gabeko zerbaiten balioespena dela hasiera batean; izaterik ez duen edo apenas izan duen harreman-modu bat, zeina, halako batean, bizitasun handienaz izaten hasten den²⁷. Nik hala aditzen dut Badiourena: ukatuek, *inoreztatuek*, unibertsalismoaren

Hainbat eratan, banda, olde edo talde formetan, mugitu eta oldartu ziren, inoiz armada-itxura hartu zuten eta hainbatetan liderren aurka ere aritu ziren amore eman ez zezaten. Masak izan ziren iraultzaren protagonistak. Masa zentzu osoan: antolakuntza formalik gabeko jendeketak. Honetaz, «iraultza behetik» egina, ik. Fick, 1990.

26. Achille Mbembe-k koloniaren salbuespenezko izaera nabarmendu du, eta europar iruditerian eta praktikan kolonia Carl Schmitt-en subiranotasunaren nozioa muga barik gauzatzeko lurraldea izan dela: legerik gabeko botera, *ab legibus solutus*, etenik gabeko gerra. Kolonia salbuespenezko egoera eta, orokorrean, heriotzaren politikarako lurraldea da (Mbembe, 2011, 37. or.).

27. Ebento edo jazoaren teoriaren ildotik ari da Badiou. Aurrerago ikusiko dugun bezala, Badiouk unibertsala eta singularra uztartzen ditu subjektuaren irudian. Partikularra ezaugarri zenbaiten bidez azaldu ahal da; singularra, berriz, eduki jakinez deskribatu ezin den prozesua da, (egia baten) subjektua izatearen prozesua (Badiou, 2000, 11-20. or.).

aurka beren ukapena ezarri behar dute printzipio unibertsal gisa, beren singulartasun ukatuaren unibertsala agerrarazteko. Jare izateko, aurrena, pareko izan behar. *Besteren* unibertsalek zartatzen dituzte sasiunibertsalak.

Denok ikusi ditugu Kolon La Españolan lehorreratzen ari dela erakusten diguten irudiak. Banderak, ezpatak eta gurutzeak ez dira inoiz falta «aurkikuntzaren» une mitikoaren irudietan. Helburu eta xedez kargaturiko historia hasten da horrela: *plus ultra*, europar kontzientziak ez du mugarik onartzen, bazter guztietara zabaldu behar du bere argia, ilunpe ororen aurka ebanjelizazio kristauak eta zibilizazio europarrak mundua bereganatu eta antolatu behar dute. Hor edo beste edonon hasita ere, historia horrek argi du nora eta noraino jo behar duen, europar zabalkundea Gizonaren esentzia burutzera dator, azkenean Gizatasuna, guztiz osaturik, bere buruari agertuko zaio argitasun osoz. Tartean, harako bidean, Fedeari edo Arrazoiari edo Zibilizazioari edo Moralari edo Garapenari edo Aurrerapenari *beste* zaion guztia ezabatu beharko du europar Ilustrazioak. Fedea izan zen hasieran, laster Arrazoa, beti Zibilizazioa, beti Kapitela, beti Agintea. Horien izenean bitan banandu ziren munduak, zibilizatuak versus salbaiak. Beregain ziren gizon konplituak, bere burua gobernatzeko dohaina eta jakintza zutenak eta, aurrez aurre, pasio zein grina irrazional zein immoralek dominaturik, bere buruaren jabe eta jare izateko gai ez ziren basatiak. Subjektua eta objektuak. Horiek dira, eskematikoki, Homogenozenoaren proiektu pedagogikoaren protagonistak. Gizonak bere baitako animalia menderatu eta zibilizatu behar izan du; praktikan, besteen larrutan egin den zibilizatzea: Indietako salbaiak, afrikar beltz zakarrak, emakume erreboltari histerikoak, langile proletariatuak, ume hezigaitzak, sexu zein genero moldeetan desbideratuak edota horien guztien bizi-praktika zikinak, zoroak, eriak, zakarrak, basatiak, ulergaitzak. Zerrenda amaigabea izanda ere, hitz bakar batez eman liteke: *besteak*.

Esan barik doa, proiektuaren egia esplotazioa eta zapalkuntza baino ez da: zer esplotatu ahal den inongo arau moralik gabe, eta zer bezatu behar den esplotazioaren ordenamendua finkatze aldera. Ez da ezkututzen den egia, aldi berean ohartuki ezaguna izan eta isilpean gorde behar dena baizik. Jakina da zein den jokoaren muina, indarkeriaz aberastasun-lehengai izan daitekeen oroz jabetzea. Jakina da, halaber, jokoak fede handia duela bere buruan. Halakoan, humanitatearen esentzia guztiz osatzen ari direlako fedean, inperio kolonialek, eliz erreformatu eta erreformatzaileek, nazio-estatuek eta beren aparatu guztiek, merkatu globalizatuak, kapitalaren logika mugaezinek eta beste sistema eragile askok egin dute Homogenozenoa²⁸.

28. Ohar bat merezi du izen kolektiboen erabilerak. Europa, Mendebaldea, Kapitalismo eta tankera berdineko hainbat hitz erabiliko ditut subjektu bat izango balira bezala. Halan tematizatu, ideologizatu, teorizatu eta praktikatu dituzte beren aldeze askok. Kontrako intentzioz ibiliko ditut nik. Izan, gehienetan sistemak edo sare eragileak dira, edo Bruno Latour-en terminoa erabiltzera, aktore-sareak. Europa, adibidez, ez da izan mundua konkistatu duen subjektua, europar guztiak ere ez dira Europa hori izan, baina eragile askoren elkarreraginezko eragintzari eta eragin multzoari izen bat jarri ahal zaio, batez ere, hartan berariaz erabili eta praktikatu denean.

Europar kontzientziaren edo Gizon (zibilizatu)aren unibertsalizazioa, haren moldeko mundu homogeneoa, hala ere, kale egiten hasi zen hasieratik bertatik bere baitako egiak behin eta berriro zartaturik. Gizonaren alderdi kontziente moral, arrazional eta eder hura ez zen ezer *beste*(lako bat) barik. Ez zuen bere burua zibilizatzerik eta lege politiko eta moralen bidez beregaintasun osoa lortzerik *besterekiko* harremanik gabe. Alegia, zapaltze, esplotatze, menderatze edo deuseztatze biolento eta irrazionalezko harremanak izan ziren bere buruaren sorbide. Bera zen kanibala, bera zen hiltzaile zoro eta irrazionala, bera zen bere burua legeetara makurtu ezin zuen piztia asegitza, bera zen bortxatzaile unibertsala²⁹. Jakina, ez zuen horren denaren berri izango *besteren* antagonismo, erresistentzia edo aurkaritza izan ez balu, hau da, besteen autonomia eta beregaintasunik eragin gabe, beste singularitasunik zehazteko baldintzak sorrarazi ezean, beste heterogeneotasun erlatiborik parez pare, kidez kide, izan barik...

Liburu honetan hori dena aztertu nahiko nuke Filosofiaren historia arrunt eta kanonikoetan agertzen zaizkigun filosofoen eskutik. Haietako batzuek —gure gogoia atondu duten batzuek— Gizon Jabearen sistema eragilearen izaera gordearen berri eman digute, zibilizazio-proiektu, homogeneizazio global eta psikosozial ikaragarri horren erdigunean egonagatik ere. Kontzeptu batzuen arrastoan ibiliko naiz horien lanetan, nagusiki *subjektuaren zantzuak* han-hemenka miatzen; subjektuaren kategoria izan baita askatasuna, justizia, berdintasuna, eskubideak, ahalmenak, singularitasuna, autonomia, heterogeneotasuna eta antzeko beste nozio askoren bilgunea. Subjektua izan da, berebat, mendekotasuna, zapalkuntza, esplotazioa, eta beste praktika askotarako erabili den arma, tresna, artea.

Globalizazioa deritzon unibertsalizazioaren erabideetan dena hankaz gora jartzeko potentzialtasuna izan duten anomaliak edo singularitasunak uste baino maizago gertatu dira. Gehienak, ordea, bizi-keinu apalak izan dira, bizitzari, askatasunari eta justiziarik eusteko hautu xumeak; eta euri-tantak itsasoan nola, hala desagertu dira. Gogoan galernak eta tsunamiak gorde ohi ditugu, ez tanten eta ur-jario motelen gomutak. Horregatik ere hasi da liburu hau esklabo eta zimarro, bahu eta iheslari, preso eta errebolatari, bortxatu eta pirata, bizi-gose eta zombien itsasalde kaotiko hartan. Jendilaje eta ez-jende izan zirenak oso presente ibiliko dira orri hauetan, baina *subjektuaren* historia honek gizon handiekin jarraituko du; bere baitan, bere unibertso arrazional eta zibilizatuan, *Gizonaren ukazioarekin* topo egin zuten gizon larri ospetsuekin, hain zuzen.

29. Jack D. Forbes-ek, Powhatan-Renapé eta Delaware-Lenapé jatorriko historialariak, kanibalismoa inperialismoarekin lotu du: «Imperialism and exploitation are forms of cannibalism and, in fact, are precisely those forms of cannibalism which are most diabolical or evil». Gizon zuriak izan duen gaixotasun epidemiko larriena izan dela dio, edonor eta edozer norberaren probetxurako kontsumitzea delako (Forbes, 2008 [1992]).

